

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko abenduaren 10a •

V. urtea • 180. zenbakia • DOAN BANATZEKO

BARRUAN,
GABONETAKO
OPARIAK EGITEKO
GEHIGARRIA



European
Newspaper
AWARD

Goienkaria
ONDOEN DISEINATUTAKO
TOKIKO AGERKARIA EUROPIAN

LEIRE BERGARA

*"Heziketaren bitartez lagundu
nahi diegu garapen bidean
dauden herrialdeei" /9*

Goienka2a

Hip-hop festa
izango da zapatuan
Arrasaten

Uste baino bisitari gehiago izan dira Oñatin abenduko zubian

Guztira 456 lagunek bisitatu dute Oñati abendu hasierako zubian. Joan den astean inauguratutako kapera eta ekarri berri duten eraberritutako erretaula bisitatu dituzte, ohiko txokoez gain.

■ *Guztira 456 lagunek bisitatu dute Oñati zubi luze honetan*

■ *Joan den astean inauguratutako kapera bisitatu dute askok*

Abenduaren 5a eta 6a izan dira bisitari gehien etorri diren egunak. Bisitari gehienak gipuzkoarrak izan dira, tartean oñatiar asko. Bizkaia, Katalunia, Araba eta Nafarroatik ere etorri dira. Egunero egin dituzte bisitaldi gidatuak, eta 218 lagunek hartu dute parte ibilaldi horietan. Eguenean ekarri zuten eraberritutako erretaula unibertsitatera eta, horrekin batera, azken urteotan itxita egon den kapera ere zabaldu zuten. Turista askok biak bisitatu dituzte, herriko gainerako txokoez gain.



Lehendakariak ongietorria egin zien Espainiako Errege-Erreginei Fagorek Garagartzan inauguratu zuen lantegian. XABIER URTZELAI



Makinak alokatu eta saltzen ditugu
Eraikuntzarako eta obra publikorako

ALKIDEBA

Soluzioak errentan.

Maltzaga bidea - 20590 Soraluze
Tel.: 943 75 15 54 . Faxe: 943 75 00 31

Goitondo industrialdea, 3. pab. 11-2 partzela, 48269 Mallabia - Bizkaia
Tel.: 943 17 13 62 . Faxe: 943 17 14 56

ASTEKO GAIA: ESPAINIAKO ERREGE-ERREGINAK ARRASATEN

Protestak eta txaloak Espainiako Erregeari

■ *Lehendakariak egin zien harrera Errege-Erreginei*

■ *Garaia ikerkuntza gunearen lehen harria ipini zuten Espainiako monarkek*

■ *Fagor Etxetresna Elektrikoen lantegi berria ere inauguratu zuten Garagartzan*

■ *Manifestazio jendetsuak egin zituzten Arrasaten, protesta modura*

Segurtasun neurri zorrotzekin egin ziren atzoko ekitaldi guztiak. Ez zen gutxiagorako, Espainiako Juan Carlos I.a. eta Sofia Errege-Erregi-

nak etorri baitziren Arrasatera. Txalo artean hartu zituzten batzuek; aurkako oihuekin eta manifestazioak eginez beste batzuek. /3-5



Bisitaren aurkako kale-bilkurak egin zituzten Arrasaten.

ARGAZKI PRESS



Sikol
LENTZERIA

Gabonetako oparirik onena.

Olarte 31
(Arbolapeta ondoan)
ARRASATE

Entzun zer eskaintzen dizun Instituto Opticok:



- Entzumen azterketak
- Entzumen heziketa
- Teknologia berrieneko audifonoak



ARRASATE:
Erdiko kaleko 22.
Tel.: 943 79 71 68

BERGARA:
Bidekurutzeta 10.
Tel.: 943 76 97 03



Milar zorion!



**Olympus C310
ZOOM Energia
bikoitza 199 €**

- 128 Mb memoria
- 3,2 millioi pixel
- 16 + 128 Mb txartela, Olympus zorro originala, kargadorea eta berriz kargatzeko batera joko bikoitza dakartza.

ADI!

Errebelatu digitala: 0,15 €
24 kopiatik aurrera (10x15)



**ESKAINZA
BEREZIA**

Telefonica Movistar-era k ontratua aldatzen baduzu, **Nokia 3100 mugikor bat eta DVD bat DOAN** jasoko dituzu.



Telefonica
Movistar

MILAR ELKORO
milar da erraza da

Olarte 1
ARRASATE
943 79 18 86

Zatoz
Gabonetako katalogoa jasotzera!

Espainiako Errege-Erreginen bisitaldiak markatutako eguna

Protesta modura, hainbat arrasatearrek ikurrina jarri zuten leihoan

MARIA AGIRRE

Sinbolikoa, baina garrantzi handikoa. Hitz horiekin laburtu zuen atzoko eguna Jesus Catania, MCCko presidentea. Era berean, Korporazioarentzat garai berri baten hasiera esan nahi zuela gaineratu zuen.

Segurtasun neurri zorrotzeekin egin zituzten atzoko ekitaldi guztiak. Ez zen gutxiagorako, Espainiako Juan Carlos I. erregea eta Sofia erregina etorri zirenetan Arrasatera. Ertzaintza, Guardia Zibila eta Arrasateko Udaltzaingoa arduratu ziren segurtasunaz. Garaia ikerketa guneko lehenengo harria jartzera, eta Fagorren Garagartzako lantegi berria inauguratzera etorri ziren. Batean zein bestean, protagonista nagusi izan ziren Espainiako monarkiaren ordezkari gorenak.

SOFIA ERREGINA, MOREZ JANTZITA

Gasteizera hegazkinez eta, eguerdiko hamabiak pasatxo zirenean, Arrasatera autoz iritsi ziren Errege-Erreginak. Azpimarratzekoa Sofia erreginaren jantzien kolorea, morez, Arrasateko kolorez jantzita etorri zen eta. Kasualitate larregi, kasualitate izateko. Iritsi orduko, hainbat agintari, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria eta Juan Maria Atutxa Legebiltzarreko presidentea tartean, zain zituzten Garaia ikerketa gunearen sarreran, Uribe auzoan. Hainbat herritar ere gerturatu ziren auzo horretara, Juan Carlos eta Sofia gertutik ikusi eta txalo egiteko. Bien bitartean, protesta modura, inguruko etxe batek musika ozen entzuten hasi zen. *España huele a culo* zioen abesti bat hasieran, ondoren *Euzko Gudariak*, eta jarraian beste



Juan Carlos I. Espainiako erregeak agerrarazi zuen Fagorreko lantegi berriko plaka, Lehendakaria eta Sofia Erregina alboan zituela.

XABIER URTZELAI

pare bat segurtasun indarrek ixilarazi zuten arte. Ikurrinak ere ikusten ziren Uribe auzoan, eta arrasatear bat leihora atera zen ikurrina astintzera.

MCC eta Garaiaiko ardura-dunekin bilera motza egin, eta ikerketa gunearen gaineko nondik norakoak jaso ondoren, Errege-Erreginak Uribe auzoan jarritako karpara sartu ziren, uneoro Ibarretxe lehendakaria, Antonia Trujillo Espainiako Etxebizitza ministroa eta Jesus Catania lagun zituztela. Han, Garaia ikerketa guneko lehe-

Ibarretxe lehendakaria uneoro izan zen Errege-Erreginen ondoan

nengo harria erakutsi zuten. Horren ondoren, Garagartzara hurbildu ziren, Fagor Etxetresna Elektrikoan lantegi berriaren plaka erakustera. Lantegia

ere bisitatu zuten, eta Juan Carlos erregea langile biri hurbildu zitzaizen hitz batzuk egiteko. Gainera, Garagartzan baieztatu zuten Errege-Erreginek berriro ere aitona-amonak izango direla. Horiek izan ziren komunikabideei egindako adierazpen bakarrak.

EGUNEROKOTASUNA ETA PROTESTAK

Bien bitartean, arrasatear askorendako zubi luze baten ondorengo eguna izan zen atzo. Goizean egunerokotasuna usaintzen zen Arrasaten. Hala

ere, protesta modura, hainbat leiho eta balkoietan jarritako ikurrinek adierazten zuten atzoko eguna ezohikoa zela askorendako.

Era berean, LAB sindikatuak deituta, bi orduko lanuztea egin zuten hainbat langile eta ikaslek. Lanuztearekin bat egin zuten hainbat dendarik ere, komertzioetako ateak itxita. Manifestazio jendetsuak ere egin ziren eguerdi eta iluntzean. Bestalde, Arrasateko epaitegiari eraso egin, eta edukiontzi batzuk irauli egin zituzten.



XABIER URTZELAI

Hirurogei komunikabide akreditatu ziren jarraipena egiteko.



XABIER URTZELAI

Segurtasun neurriak itzelak izan ziren atzo Arrasaten.



UBANE MADERA

Zabor edukiontziak lurrera bota zituzten protesta modura.

ESPAINIAKO ERREGE-ERREGINAK ARRASATEN

Ikerketari ateak irekiko dizkio Garaia guneak

12 urte barru 2.000 ikertzailek
egingo dute lan Garaia gunean

MARIA AGIRRE

Garaia ikerketa gunea apurka-apurka gauzatu joango den proiektua da. Hain zuzen, 12 urteren epean egingo dute. Euskal Herriko ikerketa gunerik garrantzitsuena izango da Garaia, 2.000 ikertzailek jardungo dute, eta proiektua dagoeneko hasi bada ere, gizarteari horren berri eman eta helburuak plazaratzeko balio izan zuen atzoko ekitaldiak. Andoni Gartzia, Garaia gerentea, hala adierazi zion GOIENKARIARI.

HAINBAT BAZKIDE GARAIA

Jose Ignacio Garatek, Garaia Berrikuntza Gunearen presidentea, Garaia hainbat bazkidek osatutako proiektua dela gogoratu zuen atzo. MCC, Gipuzkoako Foru Aldundia, Jaurilaritza eta Arrasateko Udala dira bazkideak. Hala, erakunde horietako agintari gorenak izan ziren atzo

Arrasaten: Joxe Juan Gonzalez de Txabarri Aldun Nagusia, Inazio Lakuntza Arrasateko alkatea, eta Ibarretxe lehendakaria eta Ana Agirre Industria Sailburua, besteak beste.

Horiek guztiek diruz lagunduko dute proiektua, aurrekontua handia da eta: 46,5 milioi euroko inbertsioa aurreikusi dute Garaiarako. Horietatik 29 milioi lursailak erosteko, eta 17,5 milioi eraikinak egiteko erabiliko dituzte. Fagor Ederlan izango da, beste kooperatiba batzuekin batera, datorren urtean Garaia ikerketa gunean proiektu bat hasiko duen lehenengoa.

Jose Ignacio Garatek azpimarratu zuenez, gaur egun ikerketak berebiziko garrantzia du enpresek aurrera egin dezaten. Hitz horiekin bat egin zuen Jesus Cataniak, Mondragon Korporazio Kooperatiboaren presidentea ere, eta 1974an Ikerlan sortuta, kooperatibek ikerketari heldu ziotela gogoratu zuen. Orain



Garaia ikerketa guneko lehenengo harria aurkeztu zuten Errege-Erreginek.

XABI URTZELAI

*Etorkizuneko
erronkei erantzuteko
Garaia ezinbestekoa
izango dela diote
arduradunek*

hainbat urte Industrialdeak eta, horren ondoren, Teknologi Zentroak garrantzitsuak izan zirela esan ondoren, etorkizuneko erronkei erantzuteko Garaia Berrikuntza Gunea ezinbestekoa izango dela berretsi zuen. Eta bukaeran, Arizmendiari hitz batzuk ekarri zituen gogora: Arrasateko kooperatibismoaren sortzaileak esan zuenez, orain

*46,5 milioi euroko
inbertsioa
aurreikusi dute
Garaiarako, 17,5
eraikinak egiteko*

arrakastasua izan arren, geroa bermatzeko etorkizunari begira egon beharra dago.


ETXENIKE ZIENTZIALARIA ARRASATEN

Ikerketa ardatz izango du Garaia, eta atzoko ekitaldian ez zuen huts egin Euskal Herriko zientzialari ospetsuenetarikobatek, Pedro Miguel Etxenikek. Ikerketak berebiziko garrantzia

*Etxenike
zientzialariak
ikerketan inbertitu
beharra dagoela
esan zuen*

duela adierazi, eta arlo horretan dirua inbertitzeko beharraz hitz egin zien Etxenikek agintariei. Europan gutxi inbertitzen dela eta Ameriketako Estatu Batuetara begiratu behar dugula gaineratu zuen.

Hitz horiekin bat egin zuen Mauri Lazkanok ere, egun Europako parke teknologikoen sareko buruak.



INAZIO LAKUNTZA

ARRASATEKO ALKATEA

Ekimen oso positiboa izan da, gure bi helburuak ondo bete direlako: Garaia Proiektuan beste pauso bat eman eta Garagartzako ontzi-garbigailuen instalazioak inauguratu. Errege-Erreginek gogo handia zeukaten etortzeko, eta MCCrendako ere ona da, helburu komertzialak ondo bete direlako. Hemengo enpresa batzuen kontra gogor egin dute Espainian eta beharrezkoa zen hori aldatzea.



ALBERTO GORRITIBEREA

KAZETARIA

Errege-Erreginen etorrera aurpegia garbitzeko ekimena izan ei da, baina nik gehiago esango nuke: berrikuntza eta teknologia zentro baten nahitaezkoak dira errekurtsio publikoak; horiek Madrilen daude, erakarri egin behar dira, eta horretarako ekarri dituzte Errege-Erreginak. Lehen harria jarzteak sinbolismo handia du, baina beste irakurketa bat ere egin behar da.



ANDONI GARTZIA

GARAIAKO GERENTEA

Gure asmoa zen jendeak jakitea epe luzera Garaia Berrikuntza Guneak zer gura duen izan, eta hori lortu dugula uste dut. Bestalde, Erregearekin berba egiteko aukera izan dut, eta esango nuke gustura joan dela. Oñatiren gainean egin dugu berba, gaztetan Oñatin izaten zen-eta oporretan, eta Debagoieneko herritarren eta hemengo etorkizunaren gainean ere egin dugu berba.



PABLO MONGELOS

FAGOR ETXETRESNEN GERENTEA

Jesus Larrañaga ekarri gura dut gogora, bera izan zelako buru Fagor Etxetresna Elektrikoetako lehenengo urtetan. Aurten hil da Jesus, baina hark egindako lana azpimarragarria izan zenez, gaur ezin aipatu gabe utzi. Garagartzako planta Europako modernoetako da. Urtero 800.000 garbigailu, 750.000 plaka, 654.000 labe eta 520.000 ontzi-garbigailu egiteko asmoa dugu.



JESUS CATANIA

MCC-KO PRESIDENTEA

On Jose Maria Arizmendiari orain dela 35 urte orduko Juan Carlos Printzeari bidalitako gutuna azpimarratu gura izan dut. Inork ez luke esango sasoi hartan zeukaten lan egiteko moduak eta orduko pentsamolde humanista, solidario eta parte-hartzaileak sortu behar zuela Euskal Herriko lehen enpresa taldea eta Estatuko zazpigarrena, eta lana emango ziola 70.000 laguni.

Europako lantegirik modernoena Fagorren

Garagartzan 2,7 milioi etxetresna egingo dira urtean

MARIA AGIRRE

Arratsaldeko ordu bat eta erdiak pasatxo zirenean agerrarazi zuten Espainiako Errege-Erreginek Garagartzako lantegi berriaren plaka. Pablo Mongelosek, Fagor Etxetresna Elektrikoetako gerenteak, arduradun guztiei eskerrak eman, eta lantegiaren inguruko argibideak eman ondoren izan zen hori. Mongelosen arabera, Garagartzakoa da Europako lantegirik modernoena. 2001. urtean hasi ziren lantegia birmoldatu eta handitzeko lanak, eta aurreikusi bezala, aurten bukatu dituzte lanok. Une honetan, 70.000 metro koadroko azalera

dauka, birmoldaketa hasi aurretik baino 20.000 metro koadro gehiago. Guztira 68,5 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa egin dute. Garbigailuak, plakak, labak eta ontzi-garbigailuak egin dituzte Garagartzan, eta, lantegia berrituta, urtean 2,7 milioi etxetresna elektriko baino gehia-

go produzituko dituzte. Lantegiko makinari iraultzaileena Expander izenekoa da, ontzi-garbigailuen upelak egiteko makina. Orduko 110 upel egiten ditu.

SAN ANDRES AUZOTIK MUNDURA

San Andres auzoan hasi zuen ibilbidea Fagor Etxetresna Elektrikoak lantegiak 1956an, Ulgor izenez. Hainbat urtez, aurten hildako Jesus Larrañagak zuzendu zuen Ulgor lantegia; horregatik, atzo egindako agerraldian, Pablo Mongelosek hark egindako lana goraiatu zuen. Gaur egun kanpoko merkatura zabalik dago Fagor. Marokon, Txinan eta Polonian lantegiak dituzte, eta Errusian ere ikusmira jarrita dute.

Garagartzako lantegia 2001. urtean hasi ziren handitzen, eta lanak aurten bukatu dira



XABIER URTZELAI

Lantegia inauguratu ondoren, berau bisitatu eta garbigailuak barrutik zelakoak diren ikusteko aukera izan zuten gonbidatuek.



U.M.

Azkenaldiko manifestaziorik jendetsuena egin zuten Arrasaten.

Protesta jendetsuak Errege-Erreginen etorrerarengatik

UBANE MADERA

Espainiako Errege-Erreginen bisita dela-eta, protesta ekitaldiak egin zituzten Arrasaten, eguen eguerdian eta arratsaldean. LAB sindikatuak deituta, bi orduko lanuzteak egin zituzten zenbait ikasleek eta langileek. Hala, adibidez, eguerdian, Alde Zaharreko saltoki ugari itxita izan zituzten atak ordubetez, eta Arrasateko Udaleko zenbait langilek ere eten egin zuten lan jarduna. Eta lanuzte horiekin batera, 12:30ean eta 19:00etan, manifestazio jendetsuak izan ziren Arrasateko kaleetan. Erregearen eta EAJren kontrako oihuak eta independentziaren aldekoak egin zituzten, besteak beste. Manifestazioaren ibilbidea bere-

zia egin behar izan zuten, segurtasun kontuengatik ez zirelako utzi Errege-Erreginak bisitara etorritako guneraino iristen. Baina, manifestazioaren ostean, zenbait lagun, gazteak batez ere, haraino gerturatu ziren, poliziek gerarazi zituzten arte. Edozelan ere, oro har, lanuztearen antolatzaileak pozik agertu ziren jasotako erantzunarekin, eta MCCren jarrera salatu zuten, Errege-Erreginak hona ekartzeagatik. Besteak beste, salatu zuten "Frankismotik eratorritako eta herri honen gehiengoak gutxiesten duen marko zaharren" irudia dela.

Bestalde, eta euskalduntasuna aldarrikatzeko, zenbait etxebizitzako leihoetan eta balkoietan ikurrinak ipini zituzten egun osoan.

Txuringo Jatetxea

Osintxu
Tel.: 943 76 48 63

NEGUAN
Igandeetan itxita,
baina enkarguak hartzen dira

- Menua
- Asteburuetan menu berezia
- Ehiza
- Enkarguz:
 - Babarrun-jana
 - Arkume errea
 - Txerrikumea

Ordenagailu eskaintza!

689€
+ BEZ

Galdetu 2. eskuko ekipoen eskaintzen berri!
Ordaintzeko erraztasunak!

PIV, 3.0/800 MHZ
512 Mb. DDR 400
120 Gb.
VGA ATI 64 Mb.
+ TB irteera
DVD birgrabatzailea
kapa bikoitza
CRT 17" Monitorea
Arratoia eta
tekla optikoak



ANTZUOLA

Ibarretxe Planaren berri emateko mahaia jarriko dute zapatuan

Antzuolako EAJk Ibarretxe Planaren eta Estatutu Berrirako Proposamenaren gaineko mahai informatzailea jarriko du. Bihar, zapatua, izango da hori, goizez eta arratsaldez, Zurrategin eta Herriko Plazan.

KARTA TXAPELKETA

Erretiratuen Elkarteak karta txapelketak antolatu ditu datozen asteetarako. Mus, tute, puntu eta briska txapelketak, hain justu, jokatuko dituzte. Interesa dutenek etzi, domeka, dute izena emateko azkeneko eguna. /AINTZANE IRIZAR

ARAMAIO

Miren Agur Meabe ipuin kontalariak berbaldia egingo du martitzenean

San Martin Eskolako umeek luxuzko hitzordua dute datorren martitzenean: Miren Agur Meabe idazle bizkaitarra. Liburutegira etorriko zaie 3. 4. 5. eta 6. mailako ikasleei irakurritako liburuen gainean berba egiteko. Hain zuzen ere, lau liburu irakurri dituzte: *Etxe bitan bizi naiz*; *Itsaslabarreko etxea*, *Nola zuzendu andereño gaizto bat* eta *Joanes eta Bioletaren bihotza*.

Urteak dira Aramaion idazleen hitzaldiak antolatzen dituztela. Baina lehenengo aldiz etorriko da emakumezko idazle bat. /U.M.

ELGETA

Barikuan amaituko da lehiaketara Gabon zuhaitzak aurkezteko epea

Udaleko Kultura batzordeak Gabonetako zuhaitz lehiaketa antolatu du. Lanak datorren barikuan, abenduaren 17an, aurkeztu beharko dira, 18:30etik 19:00etara, udaletxean. Lehiaketan edozein herritarrek har dezake parte. Baina bete beharreko baldintza bat da zuhaitza ezin dela naturala izan. Zuhaitzak taberna eta dendetan jarriko dira ikusgai, eta sari banaketa abenduaren 23an Olentzero etorri aurretik egingo da. Besteak beste, onena eta orijinalena sarituko dituzte. /I.A.



ARTXIBOA

BERGARA

Aurtengo Gabonetan argi gutxiago herriko kaleetan

Gabonetako argiak astelehenean, abenduaren 13an, piztuko dituzte. Aurreko urteotan bezala, Maykolux enpresa arduratuko da argiak jartzeaz. Hala ere, beste urte batzuetan baino argi gutxiago jarriko dituzte aurtengo Gabonetan. San Martin plazan, Mizpirualde egoitzan eta San Antonion bakarrak jarriko dituzte, 5.000 euroko aurrekontuarekin. Iaz 19.200 euro bideratu zituen Udalak Gabonetako argiztapenerako.

Bestalde, erakusleho lehiaketa deitu du Udalak: abenduaren 10etik 27ra bitartean (biak barne) prestatuta egon beharko dute herriko erakuslehoek. Epaimahaiak, besteak beste, publizitate mezuaeren imajinazioa, orijinaltasuna eta eraginkortasuna izango ditu kontuan sariak ematerakoan. /E.M.

OÑATI

Zilarrezko Q agiria lortu du Txantxiku ikastolak kudeaketa onagatik

Zilarrezko Q saria eman dio EFQM erakundeak Txantxiku ikastolari. Ikastolaren kudeaketaren atal nagusia irakaskuntza eta ikaskuntza dira: eskolak eman, tutoretza, ebaluazioa eta orientazioa, besteak beste, eta, hain zuzen, kudeaketa hori baloratu du EFQM erakundeak. Kalitatearen Kudeaketarako Europako Fundazioak kudeaketa mailan aurreratu dauden erakundeei ematen die Q saria.

Europako erakunde horrek Europako Batasuneko erakundeen kudeaketa eta praktika egokienak biltzen ditu, etengabeko hobekuntzan oinarritzen da eta erakundeko pertsonen inplikazioa eta partaidetza bultzatzen ditu.

TXANTXIKU IKASTOLAREN POZA Azaro bukaeran jaso du Txantxiku ikastolak zilarrezko Q saria, eta oso pozik jaso ere. Ikastolako langileen hitzetan, "ikastolako guraso, langile, ikasle eta

laguntzaileak buru-belarri inplikatu direlako iritsi gara iritsi garen lekura", eta gaineratu du "lortutakoak etengabeko hobekuntzarekin dugun konpromisoa" berresten duela.

IKASTOLAREN EGUNGO EGOERA

Duela 37 urte sortu zuten Txantxiku ikastola San Miguel kooperatibak zuen gela batean. Irakasle bat eta 28 ikasle zituen sortu zenean. Gaur egun, 0 urte-tik 18 urte arteko ikasketak eskaintzen ditu eta 747 ikasle eta 74 langile ditu. Bi eraikuntzatan ematen ditu eskolak eta eskolaz kanpoko ekintzak ere baditu. /O.E.

Zertzelada

Duela 37 urte sortu zuten Txantxiku ikastola San Miguel kooperatibako gela batean; 28 ikasle eta irakasle bat zeuden. Egun 747 daude.

ARRASATE

Arrasateko azken errementaria, Bixente Barandiaran, hil da

Martitzenean hil zen Bixente Barandiaran, 93 urte zituela. Eguaztenean egin zioten senitartekoez eta lagunek azken agurra, San Frantzisko parrokian.

Bixente Barandiaran Apotzagan jaio zen 1911ko uztailearen 20an. 18 urterekin ikasi zuen errementari ofizioa; eta harrezkero lan horretan jardun du,

erretiratu arte eta baita erretiratu ostean ere.

ONDAREA ONDO GORDETA

Hil da, bada, Arrasateko azken errementaria. Baina Bixente Barandiaranen ondarea geurean geratu da: Zerrajerako egoitza nagusian, Erakusketa Industrialean, hantxe dago errementariaren lantegia. /U.M.



U.M.

Bixente Barandiaran, Industria erakusketan ipinitako lantegian.

ARETXABAETA

Abenduaren 22an egin nahi dute etxebizitza sozialen zozketa

Seguruen abenduaren 22an egingo da Udalak finkatutako salneurrian salduko diren etxebizitzaren zozketa. Kirol etxean egingo da zozketa, notarioa bertan dela, eta zozketan aukerata irten ahala, etxebizitza aukeratzeko joango dira herritarrak. Etxebizitza gehienak hiru gelakoak izango dira, eta gutxi batzuk bikoak.

Guztira 185 etxebizitza emango dituzte zozketan, baina badaezpada, ordezko batzuk ere aukeratu dituzte. Alegazioak aztertu ondoren, 292 lagun sartuko dira zozketan. /M.A.

ESKORIATZA

Gose eta egarri greba Marixol Iparragirren egoera salatzen

Marixol Iparragirre preso eskoriatzarrak Frantziako Gradignane kartzelan jasandako hainbat eraso salatzen, gose eta egarri greba hasi zuen aurreko astean. Abenduaren 8an amaitu zuen protesta hori. Hainbat herritarrek euren elkartasuna erakutsi gura izan diote Marixoli, eta, hala, protesta ekimenak egin zituzten. Bost pertsonako taldeetan elkartu eta txandaka gose eta egarri greba egin zuten eurek ere, udaletxean. Atzo, eguea, prentsurrekoa eman zuten gertatutakoa salatzen. /Z.V.M.

GATZAGA

Sistema berriak jarriko dituzte Udaleko datuak babesteko

Leintz Gatzagako udalak sistema informatikoa berritzea adostu zuen azken ohiko osoko bilkuran. Nahiz eta datuak eskuratzeko sarbidea nahiko kontrolatuta egon, programa berriak ezarri gura dituzte, badaezpada ere, izan ditzaketan arazoak aurre egiteko.

Ez dakite noiz egingo duten. Programa informatiko berriak euren ordenagailuetan sartuta, datuak hobeto babestuta utziko dituzte. Oraindik ez dute egitasmoaren kostua zehaztu. /Z.V.M.

Boheri hitzak egunsentia esan nahi du *chibcha* hizkuntzan, garai batean Kolonbiako Boyaca herrialdean hitz egiten zuten hizkuntzan. Aretxabaletan egoitza duen elkarte horrek Kolonbian eta Venezuelan egiten du lan.

OIHANA ELORTZA

Noizko hitza da boheri?

Espainiarrak Kolonbiara heldu aurretik hitz egiten zuten *chibcha* hizkuntza hango Boyaca zonan. Egun desagertuta dago hizkuntza hori, galdu egin da. Boheri elkarte hango kide bat dugu eta hark eman zigun izena.

Noiz sortu zenuten Boheri elkarte?

Elkarte bera martxoan sortu genuen eta apirilean lortu genuen izaera juridikoa. Hala ere, lanean aspalditik gabiltza. Kolonbian hasi ginen duela sei bat urte eta aurrean Venezuelan ere badihardugu.

Zeintzuk dira elkartearen helburuak?

Garapen bidean dauden herrialdeei laguntzea da helburu nagusia. Ez, ordea, inbertsio potoloak eginez, baizik heziketaren bitartez. Heziketan laguntzea premiazkoa dela ikusten dugu. Euren autogestionatzea da helburua, eurak izatea bilakaeraren jabe.

Helburu horiek lortzeko, elkarlanean aritu izan gara hango elkarrekin. Kolonbian, esaterako, sindikatu eta erakunde batekin egin dugu lan. Sei urte pasa dira, eta, une honetan, euren dute proiektuaren gidaritza. Orain, gauza bera egiten hasi gara Venezuelako Maracaibo eta Caracasen.

Zenbat eta ze motatako proiektuak jarri dituzue martxan?

Kolonbiako Cocuy eskualdean, adibidez, txerrikiak egin eta saltzen dituen kooperatiba bat jarri zuten martxan. Produktu horiek kanpotik eramaten zituzten lehen eta oso garestiak ziren. Bertan egitea erabaki zuten, txerrikik ateratzen dituzten produktuak ahalik eta herritar gehienek erosteko moduan egon zitezten. Kooperatiban bertan hazten dituzte txerri gehienak eta inguruko biztanleei ere erosten dizkiete. Bertan zatitzen dute eta bertan ateratzen dituzte urdaiazpikoak, soloak, txorizoak eta gainerakoak. Orain, asmoa da supermerkatu kate batean sarzea produktu horiek, baina errepideak ez dira oso onak eta zailtasunak dituzte garraioan.

Asko kosta zitzaizuen enpresa hori martxan jartzea?

Hasieratik ikusten genuen beharra pertsona batzuk prestatzeko lider bezala lan egiteko. Baina jendeak sinetsi egin behar zuen lehenengo gure ideian, eta pentsatu genuen kooperatiba bat sortzea izango zela onena. Benetako adibide batekin jendeak ikusi ahal izan zuen horrelako proiektu batek funtziona zezakeela, eta handik aurrera errazagoa izan zen lana.

Zein izan zen hurrengo pausoa?

Administrazio eskola bat martxan jartzea. Helburua ez zen goi mailako ikasketak eskaintzea, baina bai urtebeteko administrazio ikasketak trinkoak ematea. Ikasketak horiek eskaintzeko barnetegia bat prestatu genuen, eta ikasleek bertan ikasten zuten eta bertan bizi ziren. Prestakuntza trinkoa eskaini genien eta arrakasta handia izan zuen. Eskualdeko bertako herri askotako ikasleak izan genituen eta herri batzuetan, adibidez, udaletatik bideratu zuten administrazio eskola horre-



Leire Bergara

BOHERI GKE-KO KIDEA

“Heziketaren bitartez lagundu nahi diegu garapen bidean dauden herrialdeei”

KOLONBIA ETA VENEZUELA

“Administrazio eskola bat sortu genuen Kolonbian eta ikasketak trinkoak eskaini dizkiegu euren negozioak martxan jartzeko. Orain, Venezuelan zabaldu dugu eskola bera”

ELKARLANEAN EGINDAKO PROIEKTUA

“Hasieratik ikusten genuen beharra pertsona batzuk formatu eta prestatzea lider bezala lana egiteko. Horretarako, txerrikiak negozio bat sortu genuen hangoen laguntzarekin”

tan parte hartzeko aukera, eta euren ikusi zuten zein pertsona izan zitekeen ikasle egokia, han ikasitakoa gero herrian bertan aplikatzeko.

Eskolako ikasketak bukatzeko, ikasleek ikusi behar zuten euren herrian zein negozio edo enpresa zen bideragarri eta horren proiektua aurkeztu behar zuten. Kooperatiba hori martxan jartzeko behar diren pauso guztiak egin behar zituzten: pentsatu zein enpresa eratu nahi den, non, zenbat toki beharko duen, nolako egitura,

zenbat langile, produktua nola merkatu-ratu, zein baimen beharko liratekeen iker-tu eta baimen horiek lortu, besteak beste. Horren emaitza bat da, adibidez, oraintxe jarriko duten patata frijituak eta txerri azal frijituak egin eta saltzeko negozio bat. Beste bi lagunek, berriz, marmeladak egiteko ideia zuten.

Zabalik duzue eskola oraindik?

Une honetan ez da beste ikasturte trinkorik eskaintzen; bai, ordea, moduluak. Bogotakoek zein hemendik joaten diren ira-

kasleek eskaintzen dituzte. Hala ere, orain Venezuelan sortu dugu eskola hori. Maracaibo zabalik dago une honetan eta Caracasen ere aurrera doaz negozioak. Hango administrazio eskolak helburu bera izango du, eta, hasiera baten, planteamendua ere bera da.

Nola antolatzen duzue laguntza?

Elkarteko partaide batzuk han bizi dira, orain arte Kolonbian bizi izan dira eta orain Venezuelan daude, eta besteok hemendik egiten dugu lan. Mundukideko Elkartruke programaren bitartez hango lagun batzuk hona etorri ziren kooperatiben lana eta eraketa bertatik bertara ikusteko. HUEZILKO bi ikasle ere Kolonbian ibili dira lanean, hango eskola administrazioan ikasketak ematen, adibidez. Bestetik, dirulaguntzak lortzen saiatzen gara hemendik hara bidaltzeko, eta udako oporretan hara joaten gara, gure esperientzia kooperatiboa erakustera eta ahal dugunean laguntzera.

Non lortu dituzue dirulaguntzak?

Oñatiko Udalak, esaterako, hasieran lagundu zigun eta azken lau urteetan Arrasate eta Aretxabaletako eman dute. Aurrean ere jaso dugu Aretxabaletako Udaltik eta Arrasatekotik oraindik ez, baina emango digutela esan digute; beraz, jaso dugu uste dut. Eskoriatzako Udalarik ere eskatu diogu eta hark ere eman digu. Udalez gain, Fagor taldeak ere eman digu dirulaguntza.

Bestetik, Mundukide programarekin jarraitzeko asmoa ere badugu. Horri esker handik hona etortzeko aukera dute eta euren etekin handia ateratzen diote hona egiten duten bisitaldiari. Hemen, egia da, langile asko dituzten kooperatibak ikusten dituzte, baina badakite hemengoak ere oso langile gutxirekin hasi zirela lanean, eta orain ikusten dute noraino hel daitezkeen antolatutako kooperatibak.

Zergatik aukeratu dituzue Kolonbia eta Venezuela?

Susana Gomez arrasatearrak Bogotako unibertsitateko beka bat jaso zuen doktoretza egiten ari zela. Kolonbiara joan zen, eta han, garapenaren alde lan egiten zuen elkarte bat ezagutu zuen. Elkarteko kideak lurraldearen azterketa bat egiten ari ziren euren lana hobeto finkatzeko eta kokatzeko. Eredu kooperatiboa zuten buruan, eta Susana euren batera hasi zen lanean. Susanak guri erakutsi zigun hango asmoa eta guk ere laguntzea erabaki genuen. Orain, Susana eta Edgar Venezuelan bizi dira euren semearekin, eta hemen, Arrasate eta Aretxabaletako kideok osatzen dugu elkarte.

Nolako lurraldeak dira Kolonbia eta Venezuelako gune horiek?

Venezuelan, esan bezala, Maracaibo eta Caracasen daukagu asmoa proiektua martxan jartzeko, eta horiek biak hiri handiak dira. Gero sortuko duten kooperatibaren produktua zabaltzeko, beste enpresa batzuekin harremanak izateko eta beste gauza askotarako abantailak ematen ditu hiri batek.

Kolonbiako Cocuy lurraldea, aldiz, nekazari ingurua da. Hala ere, bere garaian industria eta eskola izan zituen gunea da. Tradizio industrialaren zuten lurraldea zen eta horri jarraipena ematen zion eskola ere bazuen. Industria horretan lan egiteko prestakuntza ematen zuten eskola horretan. Alde horretatik, gure eskualdearen antz handia duen lurraldea da, eta horretatik aukeratu genuen.

Biak hala biak oso herrialde gogorak ei dira bizi izateko.

Cocuy, adibidez, gune turistikoa da, baina egia da atzerriko turistak baino gehiago joaten direla hara Kolonbiako bertakoak. Venezuela, berriz, ez dut oraindik ezagutzen; udako oporretan joateko asmoa daukat.

Gutunak

25 urteren ostean...

Dakizuen moduan, aurten 25 urte betetzen dira Euskal Herrian Euskaraz sortu zenetik. Orain, duela 25 urte bezala, euskararen aldeko borroka ezinbestekoa da.

EHEk Euskal Herriko instituzio ezberdinetan euskararen erabileraren neurketa egin berri du. Datuak penagarrak dira, eta argi dago gure agintari eta politikariek erakusten duten utzikeria euskararen gaiaren inguruan. 36 plenotan, 2.000tik gora interbentzio neurtu dira eta horietatik 174 baino ez dira euskaraz egin. Administrazioaren euskalduntzearen gidaritzara eraman behar-koluketan zinegotzi, alkate, diputatu eta parlamentari horiek argi utzi dute zer nolako garrantzia ematen dioten euskararen normalizazioari.

Bestetik, aurten ere Ezabaketa Egun nazionala egin genuen azaroaren 27an, eta Debagoienean 200 kartel inguru ezabatu genituen.

Kontuak kontu, aurten guretzat ospakizun urtea da. Abenduaren 18an Iruñeko Anaitasunan egingo den ekitaldirako dei egin nahi dizuegu. Ekitaldi interesgarria izango da Iruñekoa, orain arteko ibilbideari errepaso bat egiteko aukera ezin hobea, irudiak, musika, aurpegi ezagunak, aurpegi ez hain ezagunak eta jaia. Begirada batez, izan garena, garena eta izango garena ulertzeko ikuskizuna prest dago jadanik. Beraz, hitzordua egin dago eta abenduaren 18an denok Iruñera (Debagoienetik autobusa aterako da).

DEBAGOIENENKO EHE
Debagoiena

Espainiako Erregearen bisita kooperatibetara

Espainiako Erregea Arrasateko kooperatiba taldeko Garagartzako lantegiko sail berri bat inauguratzera eta Garaia proiektuko lehen harria ipintzera omen dator. Eta, noski, ez da bakarrik etorriko.

Berriak benetan barren guztia astindu dit. Hasteko eta behin, euskaldunok ez dugu Erregerik aspalditxotik eta Errege arrotz bat ekarri behar.

Bai, ekarri esan dut, eta ez etorri. Izan ere, jakin dudanez, gomitatua omen dator-eta. Eta zeinek gomitatuko, eta kooperatibistek. Hamaika ikusteko jaio omen gara, baina holakorik, benetan ez nuen espero. Errege horrek, lehendik ere, Euskal Herria "bisitatua" zuen, zeinek eta gure askatasuna ukatzen digutenek gomitatua. Eta, hitz egiten abildade handiegirik ez, eta behatzarekin adierazi zigun, zein asmo duen guretzat.

Entzun ditudan argumentuen artean, kooperatiba taldeak Espainia aldean duen irudi txarra hobetzea omen dago. Ez dakit zein balorazio egin bide duten bisita honen bultzatzaileek konklusio honetara iristeko; baina nik ditudan erreferentziak baliatuz, behintzat, lehenik eta behin, bisita honek egiten duena da gure taldeak Espainia alde horretan irudi txarra duela onartu. Gure aurka zabaldu bide diren gezur ustel guztiak egia bailira onartu.

Benetan horrenbesterako da! Neuk ez dut uste hala denik; eta baldin balitz ere, ez dut uste gure markaren irudia jaun horrek hobetuko digunik.

Zer esango die gure banatzaileei? Nazionalismo baztertzalea abandonatu eta demokrazia monarkikoa besarkatu dugula? Ala, koko-soberania (buru-jabetza, alegia!), kooperatzaile eta koko-demokratikoa (adimen pribilegiatua dute nentzat egin, alegia!) dela gurea, eta ez *El Mundo*-k, *El Pais*-ek, TVEk, T5ek eta A3k, aspaldiko urteetan zehar esan dituzten inkonbenientziak (konturatu gabe esandako alukeria, gezur eta difamazio batzuk, alegia!)?... Ederrak gaude!

Ez al dugu geure irudi propioa "saltiesko" adina argumentu? Ez al dago gure irudia nori saldu, horiei saldu gabe? Izan ere, hurrengoan zer eskatuko digute? piper-potoa ipintzea? Monarkiko bihurtzeko?...

Hartarako atea zabal-zabalik baitute, hemendik aurrera...

Eta zer ba...! Guk, barren-barrean, benetako euskaldun eta demokrata izaten jarraituko baitugu, inor horretaz konturatzeko ez bada ere! Izan ere, garrantzitsuena parte hartzea da, jaun-andreok.

Baina, eta... ohartzeko diria iniziatiba honen bultzatzaileek zein beste aurpegi duen? Nor, nora, noiz eta nola gomitatu duten? Ba, gogoratu beharra badago, gogoratu egin behar.

Nor: Espainiako Erregea, gure lurra (Euskal Herria, batzuek zalantzan jarri nahi badute ere) armaz konkistatu zuten oinordekoa dugu. Francok "atado y bien atado" uzteko bere oinordeko izendatu zuena da. Eta nik dakidanez, behintzat, oraindik ere "atado y bien atado" duena. Espainian onartu eta Euskal Herrian ere, gure borondate jakinaren aurka, aplikatzen den Espainiako Konstituzioaren arabera, Espainiaren batasun sakrosantua bermatuko duen armadako buru da. Espainiar Estatuko buru edo ordezkari nagusi da. Euskal Herrira heriotza, ukazioa, tortura, errepresioa eta zatiketa ekarri duen Estatu horretako buru da. Duela hilabete batzuk, soldadu mertzenario armatu talde bat gure kaleetara, eta helikopteroak gure teilatu gainetara bidali zituztenen ordezkaria da. Takian-potian, gure errepideetan kontrolak ipintzen dituztenen ordezkaria da.

Zer uste duzue, MCCko ordezkari zaituztegunok? Bisita honekin kooperatiben irudia "hobetu" egingo duzuela Madril aldean? Zer uste duzue, oraingoan behatza jaso ala jaitsi egingo duela? Gure markak dituen arazoak ez al dira beste izaera batekoak? Ez al dira gaur egungo merkatuen egoeraren ondorio? Dena den, eta neure aburuz, ez behintzat horrela konpon daitezkeenak.

Nora: baina, eta gainera, Arrasatera eta kooperatiba batetara ekarri! Hara; bisita hau, arrasatear gehienentzat (ausartzen naiz esatera) irain jasanezin bat da. Errege hori Arrasatera dator, beraien hitzetan esanda, lurralde "komantxe" batera. Konkistatza; ongi baitaki lurralde hau ez duela berea. Errege hori, gure buru gainetan ezarrita daukagun sasi-demokrazia tutelatuaren egile, babesle eta bermatzaile den Espainiar Estatuko burua da. Zer espero daiteke, izaera horretako ordezkari batengandik, men egin beharra besterik?

Ez al dira (ziren?) ba kooperatibak sistema demokratiko eta parte-hartzaile bat? Eta zuek, ekarriko ez dituen dilis-

ta (lenteja) batzuen truke, gure arima entregatu nahi diozue. "Gain honetatik ikusten duzuen guztia, zeuena izango da, baldin eta zuen arima entregatzen badidazue...eta trukean, Espainiako etxetresnen merkatua, zeuentzat".

Nola: noren onespina du bisita honek? Ausartuko al zinateke bazkideei galdetzera zer iruditu zaien erabakia? Uste baitut erabaki hau izaera guztiz politikoa duena dela. Kooperatiben interesez kanpo, beste helburu batzuk lortu nahi dituen. Hurrengo eguneko prentsak aterako dituen titularrek konfirmatuko digute diodana. Arrasaten, azken lau legegintzaldietan gehiengo izan duen aukera politikoa, "legez" kanpo dago; bere eskubide zibil eta politikoak gauzatu ezinik. Ahaztuta? Eta Errege hori "lege" hori onartu zutenen ordezkaria da. Madril guri beldurra sartu nahian (eta batzuei sartu ere) dabilzaten ordezkaria da.

Arrasate, oso aspalditik, gehiengo abertzalea duen herri bat da; eta beraz, horrelako ekimen bat inondik inora onartu ezin duen herri bat. Edo uste duzue espainiar legalitatearen barruan dagoena bakarrik dela egiazkoa?

Noiz: eta gainera, orain; bakea, konponbidea, akordioa bezalako hitzak indar hartzen ari diren honetan, zer eta, Espainiako Erregea gure artera gomitatu. Entzun al diozue ba, Espainiaren batasun inposatua besterik defendatzen? Ala, gure artean dauden askok ere hori dute ezkutuko helburu?

Hanka sartu ez ezik, oraingoan putzuan erori zarete. Eta uste dut urmela horren barrean hondar asko dagoela. Ez dakit nola aterako zareten.

Guk denok, bitartean, zipriztinak garbitzen, nahikoa lan!

XABIER ZUBIZARRETA (ARRASATEKO
ALKATE OHIA ETA KOOPERATIBISTA)
Arrasate

Maskarak zergatik?

Azaroaren 19an, *Arrasate Press*-ko *Txu-Atxu-mutxuak* sailean, pare bat argazkiz lagundurik, ondorengo testua zetozen: "Astean zehar konturatu gara herriko hainbat lekutan norbaitek maskarak jarri dituela...". Testu honen bitartez maskara hauen zergatia azaldu nahi dugu: gaur egun Arrasateko kaleetan zehar dagoen adierazpen askatasunik eza.

Gu herritar talde xume bat gara, hainbat elkarte eta erakundetan lan egiten dugunak. Gainontzeko herritarrei gure ekimenen berri emateko (partiduak, kontzertuak, antzerkiak, hitzaldiak), hau da, Arrasateko biztanleriarekin komunikatzeko, komunikabideez gain, kartelak erabiltzeko ohitura daukagu (guk ez dugu baliabide nahikorik Udalak etxera koloretan bidaltzen duen errebitaren tankerako zerbait kaleratzeko).

Honez gain, joan den "ikasturtean" herriko hainbat talde eta Udalaren artean, arazo honi irtenbideren bat aurkitzeko harremanak egon zirela badakigu. Azken finean, gutaz gain kaltetuak herritarrek baitira.

Baina gure pazientzia agortu da jada. Nazkatuta gaude itxoiteaz. Nazkatuta Cespa-koek Udalaren aginduz gure kartelak nola kentzen dituzten ikusteaz

(asteburuetan ez bada, normalean kartelak ez dute 2 egun baino gehiago irauten). Nazkatuta, egunero kartelak ipintzen ibili beharraz, honek guretzat suposatzen duen esfortzu pertsonal eta kostu ekonomikoarekin.

Gaur egun gure kaleetan bizi dugun egoera "anormala" izan da Maskarak jartzera bultzatu gaituena. Eta aurrerantzean ere egoera "anormal" honek dirauen bitartean, hau salatzen hainbat ekimen burutzeko asmoa dugu.

Besterik gabe, herritarrok ere ekimen hauetan parte hartzea gonbidatzen zaituztegu.

HERRITAR TALDE BAT
Arrasate

Alkohola adin txikikoei

Zuregana jotzen dut ama gisa nik dudana ardura bat jakinarazteko. Dudan kezka hori ondorengo hau da: Arrasateko taberna batzuetan alkohola duten edariak adin txikiko gazteei (15 urtekoei, hain zuzen ere) zerbitzatzen dizkietela. Azpimarratu nahiko nuke gertaera hauek ez direla noiz edo behinekoak, baizik eta behin baino gehiagotan gertatu direla. Esan nahi nuke, era berean, hauen guztien berri seme-alaben bitartez izan dudala.

Honekin, benetan nahi nukeena da ardura publikoak dituztenek zerbait egin dezatela arazoa konpontzeko.

A.B. (15.356.68-G)
Arrasate

Zertarako gazte teknikaria?

Orain dela aste pare bat konturatu ginen GOIENKARIAn irakurtzerakoan, Aretxabaleko Udalak gazte teknikaria bilatzeko deialdia ireki zuela. Bertan irakurri genuenez: "Gazteei zuzendutako ekintzak antolatzea eta gazteekin harremanetan jartzea izango dira gazte teknikariaren egitekoak. Gazteen aisialdia antolatzea izango da helburu nagusia" (GOIENKARIA, *Aretxagazeta*, egubakoitza, 2004ko azaroaren 5a).

Hala eta guztiz ere, ez da garbi kaleratu zein izan beharko litzatekeen gazte teknikari horrek bete beharreko funtzioa. Benetan, bertan aipatzen den bezala teknikari horrek egin beharrekoa gazteen aisialdia antolatzea bada ez dugu jarrera hori ulertzen. Horretarako sortu genuen Atxabaleko Gazte Ekimena, gure aisialdia gazteen artean antolatzeko.

Bestetik, ez dakigu zer den Udalak martxan ipini nahi duen gazte batzordea. AGEk zabalik ditu ateak herriko gazte guztientzat. Beraz, ez diogu zentzurik hartzen gazteen aisialdia antolatzeko talde berri bat sortzeari, beste bat jada martxan dagoenean.

Gazteontzat herri honetan aisialdirako ezer ez zegoela ikusita sortu genuen AGE. Ekimen honek gazteontzat erakargarriak diren ekintzak antolatzeko

aukera ematen digu. Herriko gazteok geure neurri eta gustuko aukera egiteko bilgune bihurtu da. Ostiralero udal-letxe zaharrear elkartzen garen gazte-ontzat ez da erraza ekimenak aurrera atera eta jendearen parte-hartzea bultzatzea. Hala ere, aurrera jarraitzen dugu ilusioz. Eta kezka hartzen dugu guri, gazteoi, zuzenduta esanik erabat ezezaguna egiten zaigun proiektu hori. AGEN biltzen garenok ez dugu batere garbi ikusten.

ATXABALTAKO GAZTE EKIMENA
Aretxabaleta

Loteria

Iaz Euskal Herrian ia 29.000 milioi pezeta jokatu ziren *El Gordo* loterian. Sari nagusietan 526 milioi pezeta jaso ziren Euskal Herrian. Espainiar estatuak 125.000 milioi pezeta garbi irabazi zituen Espainian *El Gordo* loteriarekin.

JON ERRASTI
Debagoiena

Utzi bakean Udalatx

Munduan lotsagabe eta bihozgabe asko daude, baina gehienak politikarien eta enpresaburuen artean daude. Zergatik diodan? Ba, nahi dutena lortzearen, hau da, batzuek boterea eta besteek dirua, edozer egingo luketelako, baita guztion ondasuna den natura suntsitu ere.

Ez dugu ahaztu behar beraien artean betidanik egon dela konplizitatea, eta azpikerietarako indarrak batu ohi dituztela askotan. Era berean, alderdi politiko berekoa izateak zenbait laguntza eta/edo oniritzi lortzen laguntzen die, zernahi prezio txikian lortzeko.

Hori horrela dela egiaztatzen duten adibideak gura beste daude: gure erreka ezin zikinagoak daude, erabat kutsatuta; planeta berotzen ari da; produktu toxikoak eta/edo kutsatuak erabiltzen dira, axolagabeki langileok arriskuan jarritz; lan-istripuak gertatzen dira nonahi, beharrezko segurtasun-neurriak hartzen ez direlako; “lanbide-gaixotasun” moduan ezagutzen ditugunak ere (minbizia, silikosisa...) ugari dira.

Minbizi-kopuru handia dago eskualdean, eta beharbada eskerrak eman beharko genizkieke horregatik, besteak beste, Ederlani, Bergarako Labegaraiei eta dagoeneko desagertuta dauden beste galdategi edo fundizio batzuei, eta jakina, nola ez, baita Akei erraustegiari ere. Harrobiak ere aipatzekoak dira, San Josepeko zenbait langile silikosiak jota daude-eta.

Nire iritiz gaitzestekoak diren planak, zentral nuklearrak esateko, onartu egiten dituzte politikariek, duten ahalmena erabiliz. Horren haritik, gogora-

tu gura dut Garoña 60 kilometrorra dagoela (lerro zuzenean) eta politikariak direla horren ustiakuntza luzatzen eta epe berriak ematen dituztenak, zaharkituta eta zartatuta dagoen zentral horrek funtzionatzen jarrai dezan. Superportuak eta energia sortzeko zentral termikoak ere hortxe daude, eta esan beharra dago beste herrialde batzuetan erosten den gasaren menpe egotea eragiten digutela. Plan horiek guztiak gauzatu egiten dira, nahiz eta jende gehiena horien aurka egon: Zornotzako kasua dugu horren adibide.

Gertuko adibideak ere badaude, esate baterako AHT, oso energia asko kontsumitzen duen tren elitista. Tren horrek abiadura handiak hartu ditzan obra faronikoak behar ditu. Ez da probetxugarriagoa, zentzu guztietan, garraioaren legeari buelta eman eta, automobila gutxiago erabil dezagun, bidaiariak eta merkantziak eramateko ohiko tren jartzea?

Eta oraindik gertuagoko adibideak daude, esate baterako Arrasateko hiru harrobietan orain arte gertatutakoa eta etorkizunerako horientzako dituzten planak. EAJrengatik balitz, San Josepeko harrobiak lanean jarraituko zuen Kurtzetxiki osoa jan arte. Afera horretan auzotarren iritzia ez du garrantzirik, ezta langileen lan-baldintzek (langile bat hiltzen bada, Inem-eko bulegoak langabetuz gainezka daude) eta ustiatze-hitzarmeneko epea gaindituta egoteak ere. Azken finean garrantzia duen bakarra enpresaburuekin ondo moldatzea da.

Kobaten, Leze-txikiko aztarnategi arkeologikoak ez du inolako garrantzirik eta mendiaren beste aldea paraje naturala izateak ere ez.

Nire belarrietara heldu den azken ideia “handia”, Kanpanzarreko harrobikoei bururatu zaie. Udalaitz zulatu nahi dute bertatik harria ateratzeko, horretarako “galéria-metodoa” erabiliz. Ez da nahikoa altuera-kota gainditu izana. Orain horretaz gain, galeria horiek aurrerago dendak, supermerkatuak, zineak, etab. egiteko erabili daitezkeela saldu nahi digute, eta jakina AHT inguruko beste sator-zulo batzuetatik ibiliko da joan-etorri.

Hori guztia negarrez hasteko modukoa da. Enpresaburuek beraien interesak (dirua) defendatzen dituzte soilik, nahiz eta guztion ongiaren eta Udalaitz moduko toki enblematikoen kontura izan.

Baina lotsa izpirik ez dutenak, 3. eta 4. mailako politiko horiek dira: ideia hori beste harrobi batzuetara “esportatzeko modukoa” dela esateko bezain zentzu gutxi daukate.

Azkenik, galdera batzuk ditut buruan, baina ez daukat erantzunik:

1. Galeria egiten hasteko nork eman ote du baimena?

2. Honako galdera hau murrizak doa: egunen batean Udalaitzeko harria bukatuz gero, nondik aterako duzue harri gehiago? Gure lorategietatik? Gure loreontzietatik? (errazena beste mendi bat hondatzea duzue!)

3. Beti izango al dugu daukaten asmoen berri, azken erabakia hartuta dagoenean?

PITER ENCINAS
Arrasate

Jesus Trincado

Azto Jesus Trincadorekin eman nituen Alau ordu goxo, Montevideoko bere etxean. Besarkada zintzo batekin erre-zibitu ninduen hegoamerikar udaberriko igande arratsalde eguzkitsuan eta besarkada bero eta maitekor batekin despeditu genion elkarrri, beste inoiz aukerarik izango ote dugun galdegai isila nuelarik, bihotza estu eta jauzika. Bera ere pentsamendu goibel berberak artegatu-ko zuelakoan nago.

Jesus Trincado 96 urte luzeko arrasatearra da, espainiar gerraren ondorioz erbesteko mikaztasuna hezurretaraino ezagutu duena eta 1950etik Uruguayko hiriburuan bizi dena. Tarte luze honetan, hots, ia-ia hirurogeita hamar urtez, konstante bat izan du bere bizitzak. Eta konstante hori, hain zuzen, bere mundrautasuna salgai eduki ez izana da. Nahiz eta mundu honetako bere igaraldiaren bi heren baino gehiago atzerrian eman behar izan duen, Jesusek ez du bere Arrasatearekiko atxikimenduaren izpirik galdu.

Trincadok eguneko beste edozein arrasatearrek baino hobeto irudikatzen du betiko desagertu zitzaigun XX. mendearen lehen laurdeneko herri txiki haren bizimodua. Eta egunero —minuturo, esango nuke— amets egiten du, zorigaiztoko patuak urrutiko bazterretara kondenatu zuen egun urruti hartako bere jaioterriaz, gu gehienontzat zeharo ezezaguna zaigun postaleko Arrasate harekin.

Zenbat malko, zenbat etsipen eta zenbat alferreko ahalegin gertatu dira Trincadoren bizitzan, bere herrikideen eta gizarte osoaren ongizatea eskuratzeko urrats ausart eta desberdinak eman behar zirela erabaki zuenetik! Eta Jesus Trincadoren baitan ilusio galduaren enbor lehorra antzeman dut azken urte hauetan.

Ongi ezagutzen dugu elkar, hogeita bederatzita urteko gure arteko gutundegiak adiskidetasun sendoa gorpuztu baitu. Maite dut Jesus eta berak ere sentimendu berarekin sariztatzen nau, nire ohererako. Ezkutuko hamaika aitorpen egin dizkit gutunetan eta buruz buruko solasaldietan ere. Gerrako gertaera latzak zein 1934ko urriaren 5ekoak haurren ipuintzat har genitzake geroan bizitzak eskaini dion aurpegi latz eta gupidagabearekin alderatuta. Eta erbestean bizi behar izatearen dramak indiferentziaren betarte ilun eta gaziarekin ordaindu du Jesusen eskaintza zabal eta oparoa.

Hirurogeita hamar urte geroago, apustuan galtzaile izatearen sentsa-

zioak betetzen du Trincadoren gogoia. Bere etxetik aldentzen ari nintzelarik, taxiaren jarlekuan abandonatuta, hausnarketa mingotsean bildu nintzen eta beste behin baieztatu diot nire buruari, Arrasateko herriak seme bat ahan-tzi zuela aspaldi. Beste hainbat herrikiderek gertatu den moduan, esker txarrekoa azaldu zaigu gure komunitatea Jesus Trincadorekiko ere. Tragedia pairatu zutenen artean, tragikoen egokitu zitzaion Jesusi, ez baitzuen sekula hildakoei eskainitako omena jaso ezta bizirik iraun zutenentzako errekonozimendu eta itzulerako aukera ere.

Jesus Trincadok ez zuen merezi halako ordain ilunik. Gauza jakina da idealistek nekez irabazten dutela luzarora erronka. Eta Trincadoren gisako ameslariak ezer gutxi zuten egiteko, beraie-na ez zen gizarte materialista eta giza balioz antzuan. Apustua galdu zuten. Eta orain dela hirurogeita hamar urtetik Trincado galtzailearen sinfoniarekin jaikitzen da egunero, hori bai Arrasateko bere oroitzapenekin inguratuta segitzeko. Oroitzapen horiek gaurko errealitatearekin zerikusi ez duten arren. Aintza zuri, Jesus adiskide laztana!

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL
Arrasate

Espainiako Erregeaz

MCCko zuzendaritzak bere kabuz Juan Carlos I.a Espainiako Estatu-ko burua gonbidatzeko hartutako erabakiaren aurrean, LAB sindikatuak ondorengo adierazi nahi du:

1. Horrelako erabaki bat bazkideen iritzia kontuan izan gabe hartzeak kooperatiben baloreen gultiz aurkakoa da eta MCC bera zer bilakatu den argi eta garbi uzten du.

2. Bisita honen aurrean gerta daitezkeen aurkakotasun erantzunak ekiditeko, bertako hainbat langilek jasaten ari diren presioak agerian uzten du MCCn gaur egun bizi den adierazpen askatasunik eza.

3. Fagor Electrodomesticos-en Gabonetako marketin kanpainatik areago, bisitak honek atzean dakarren bitarteko kanpaina eta honek Espainiar Estatuko merkaturak daukan eraginagatik, bisita hau Euskal Herrian Belodromo-ko proposamenaren haritik zabaldu-tako prozesuaren aurrean MCCko zuzendaritzaren posizio garbi bat da.

4. “Iparraldeko koloniek” Espainiar Estatuko buruari egiten dioten mendekotasun harrerak gaur egungo marko autonomikoa mantendu nahi dutenentzat argudio soilak dira. Frankismotik eratorritako eta herri honen gehiengoak gutxiesten duen marko zaharra, alegia.

DEBAGOIENEN LAB SINDIKATUA
Debagoiena

Goienkaria

DEBAGOIENEN ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Bereziabar, Arantzazu Arana

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Esteban Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

Emakumeen arteko pilota bultzatzeko proiektua aurkeztu dute

Arrasate eta Bergarako udalek egitasmoarekin bat egin dute

EDU MENDIBIL

Neska gazteen artean pilota bultzatzeko helburuarekin bat egin dute Diputazioak, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak eta hainbat udalek. *Emakumea pilotari* egitasmoa aurkeztu zuten egunean, Donostian.

Besteak beste, Fernando Tapia Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuko foru diputatua, Mikel Aménabar Gipuzkoako Euskal Pilota Elkarte (GEPE) presidentea eta Garbiñe Tijero eta Ane Lujanbio pilotariak izan ziren eguneko aurkezpenaren.

Esan bezala, neska gazteen artean pilotarekiko zaletasuna piztea da egitasmoaren helburu nagusia. Proiektuaren bultzatzaileek egunean aditzera eman zuten, azken urteotan emakumeen lizentzia kopuruak nabarmen egin du behera: hain zuzen ere, 81 lizentzia izatetik 41 iza-



Proiektuaren bultzatzaileetako batzuk eguneko aurkezpenaren ostean.

tera pasatu da bost urteren barruan.

Euskal pilotaren praktikak izan dezakeen potentzian sinistuta eta emakumearen berdintasunaren aldeko mugimenduen helburuekin bat egin

nahian, *Emakumea pilotari* izeneko egitasmoa jarri du abian GEPEk. Diputazioaz gain, hamar udalek egin dute bat proiektuarekin. Arrasate eta Bergarako udalak tartean dira.

HIRU ARLO LANDUZ

Emakumea pilotari egitasmoak hiru arlotan eragin nahi du: eskola kirolean, jolas kirolean eta kirol federatuan.

Eskola kirolaren kasuan, Ikaspilotarekin (euskal jolas eta kirolak sustatzeko Ikastolen Elkarte) erakundeak elkarlanean jardutea aurreikusen da.

Kirol federatuari dagokionez, Emakume pilotariaren batzarra osatuko da, lizentzia duten neska guztiak bilduz. Era berean, GEPEren barruan Emakumearen batzordea sortuko dute, eta batzorde horrek izango du proiektuaren garapena bermatzeko ardura.

Azkenik, kirol federatua bi ekintza nagusi zehazten dira: batetik, eskuz binakako Gipuzkoako Txapelketa herrikoia antolatzea eta, bestetik, herriko festetan emakumei zuzendutako pilota jarduerak bultzatzea.

Emakumeak kantxara ateratzeko ordua da.

Kirolabur

BOLOAK/ELGETAKO TXAPELKETA

Zapatuan Gabonetako bolo txapelketaren lehen jardunaldia jokatu zen Elgetan. Felix Gomez eibartarra izan zen irabazlea, sei txirlorekin. Bigarren Felix Azpiri bergararra (sei txirlo) eta hirugarren Jose Luis Goroabel angiozartarra (bost txirlo) sailkatu ziren. Zapatuan, hilaren 11n, bigarren jardunaldia jokatuko da, 23:30ean.

FUTBOLA/ALOÑA MENDI-BERGARA DERBIA


Aloña Mendi eta Bergara futbol taldeen arteko derbia jokatuko da domekan Azkoagain futbol zelaian, 15:30ean. GOITBk partidua eskainiko du domekan bertan, 19:00etan. Bestalde, Arrasatek Beti Gazte hartuko du zapatuan Atxabalpen, 15:30ean, eta Aretxabaletak Urolaren aurka jokatuko du domekan Ibarren, 16:30ean.

ESKIA/BAQUEIRARA IRTEERAK

Aloña Mendik urtarrilaren 7tik 9ra bitartean Baqueirara joateko irteera antolatu du. Izenematea Aloña Mendi tabernan, martitzen eta eguaztenetan, 19:30etik 21:00etara. Bestalde, Bergarako Pol-Pol Mendizale Taldearen eskutik urtarrilaren 14-16ko asteburuan Baqueirara irteera izango da. Argibideak 943 76 48 51 zenbakian.

EHIZA/IÑAKI TOLEDO

Iñaki Toledo antzuolarrak Euskadiko Oilagor Txapelketa irabazi zuen domekan, Araban. *Larpi* txakurra- ren laguntzarekin, hiru oilagor ehizatu zituen Toledok; hiru oilagor azkarren hartzen zituenarendako zen txapela, Arabako legediaren arabera ezin baita hiru oilagor baino gehiago bota-eta. Aurretik, Gipuzkoako Txapelketan, hirugarren sailkatu zen Toledo. Errioxan jokatuko den Espainiako Txapelketan hartuko du parte.



Emakumeen lizentzia kopuruak nabarmen egin du behera azken bost urteotan: 81 izatetik 41 izatera

Besteak beste, emakumei zuzendutako pilota jarduerak bultzatzea da egitasmoaren helburuetako bat

Nadal Studio irudi bat eskura dezakezu!

Rafa Oparietako hileko bezero onenak Nadal Studio markako irudi bat jasoko du.

Artisau-lanak dira.
50 eurotik 120 eurorainoko prezioa dute.

Abenduan, hiru bezero onenek irudi bana jasoko dute.

- Txartelak metagarriak dira.
- Oinarriak eta irudiak dendan bertan daude.

Zatoz! Opari finagorik ez duzu topatuko!



Rafa

RAFA OPARIK
Eroski merkataritza etxea, 3. lokala
Telefona: 943 79 76 03



Aro
berria,
erakusketa
berria.



FAGOR 

jakina
BAINU GELAK · SUKALDEAK · KERAMIKAK

Amillaga 10
BERGARA
943 76 03 30

 **INTERSPORT**[®]

Arrasate

LORAMENDI KIROLAK



SNOW-A

Tabla + fijazioa 199€
Botak eta osagarri guztiak

ESKIA

"Carving" eskiak + fijazioa 299€
Botak, kaskoak.
Eskularru teknikoak etab.

Zatoz eta jaso ESKI KATALOGO BERRIA

**Presta zaitetz denboraldi berrirako:
eskiak konpontzen ditugu**



Añai erretegia

- Eskaintza** **Ibardeaga 32 / ARAMAIO**
945 44 51 01
- Bataio eta jaunartzeak
 - Kintadak
 - Karta
- Berezitasunak**
- Arraina eta okela parrillan
 - Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik



Baster-Alde

- Eskaintza** **Galartza auzoa / ARETXABALETIA**
943 79 24 58
- Menua eta karta
 - Ezkontzak
 - Jangela: 160 lagunendako
 - Jaunartze eta bataioak
 - Kintadak
 - Terraza
 - Aparkalekua
- Astelehenetan itxita**



Dragon Oriental

- Araba etorbidea 3 (Super BIM ondoan) / ARRASATE**
943 79 85 33
- Txinatar jatetxea**
- Eskaintza**
- 140 lagunentzako jangela
 - Aparkaleku ezin hobea
 - Janaria etxera eramaten dizugu
- Eguneko menua eta karta**



Gure Ametsa jatetxea

- LEINTZ GATZAGA**
943 71 49 52
- Eskaintza**
- Ezkontzak
 - Jaunartzeak eta bataioak
 - Hiru jangela
 - Aparkaleku handia
 - Umeendako jolaslekua
- Astelehenetan itxita**



Pildain jatetxea

- Eskaintza** **Udala auzoa 14 / ARRASATE**
943 79 11 65 / 943 77 18 40
- Eguneko menua
 - Lagun arteko afariak
 - Bataio eta jaunartzeak
 - Ogitartekoak eta kazuelatxoak
- Berezitasunak**
- Bildotsa labean erreta
 - Arraina
 - Babarrunak
 - Etxean egindako ogia




Torrekuia jatetxea

- Eskaintza** **Ibargarai 37 / BERGARA**
943 76 50 99
- Eguneko menua
 - Karta
 - Kintadak
 - Bataio eta jaunartzeak
- Berezitasunak**
- Batik bat arraina
 - Itsaskia
 - Txuletak



Unzueta jatetxea

- Eskaintza** **Zabola auzoa / ARAMAIO**
945 44 50 95
- Eguneko menua
 - Karta
 - Bataio eta jaunartzeak
 - Lagun afariak
- Berezitasunak**
- Parrilla: okela eta arraina
 - Etxeko postreak
- Egunero zabalik**



Zotz jatetxea

- Eskaintza** **Zubillaga auzoa 1 / OÑATI**
943 78 35 45
- Eguneko menua
 - Ogitartekoak
 - Hamarretakoak
- Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan
- Igandeetan itxita**

GABONAK



Egubakoitza / 2004ko abenduaren 10a / GOIENKARIAren gehigarri berezia



Gabonetako opari politenak erosteko gida,
barruko orrialdeetan

AZALA: MAITENA ARANA

marrubi

zerkaostetako gutziak

zerkaosteta 16, arrasate • www.marrubi.com



Mediterraneoan zeharreko itsas-bidaiaren **ZOZKETA ABENDUAREN 16AN**

Abenduaren 16an, eguna, egingo da zozketa, **GOITBko Berriak** saioan, 20:00etan.
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun guztiak sartuko dira zozketan.

Egin zaituz Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun,
eta zozketan parte hartu ahal izango duzu.

Ez galdu aukera. Harpidetu zaituz!

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera,
09:00etatik 21:00etara.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Laguntzailea:

VIAJES IBERIA

• Barrenkalea 1
BERGARA
• 943 76 29 91

SASTRERIA MUJIKA

GIZONEZKOENDAKO ARROPAK • NEURRIRA EGINDAKO TRAJEAK



Arantzazu eta Trini Mujikako saltzaileak.

“Ehun berriekin, berokiak oso arinak baina epelak dira”

Negurako, zer motatako berokiak datoz?

Oihalezko berokiak gero eta gutxiago eskatzen dira; aurten parkak ikusiko dira gehiago, batez ere, euritarako. Baina estiloari dagokionez, betiko modeloak edukiko ditugu.

Aurtengo nobedadea zein da, hortaz?

Berritasun handienak teknologiak ekarriko ditu. Alde handia dago aurreko urteetatik, orain, mikrozuuntzekin, beroki arin eta epelak lortzen dira-eta. Gainera, ehun berriekin berokiak ez dira bi urtean-edo garbitu behar, orbain eta urari ez dielako sartzen uzten. Tencel izeneko ehuna da azken nobedadea, goxo-goxoa da eta erabat ekologikoa, gainera.

Gabonetan zer da oparitarako gehien erosten dena?

Opari txikiak, gehienbat: Burberrys etxeko bufanda, kapel edo eskularruak. Alkandoratan, esate baterako, aukera oso zabala dago, nahiz eta betiko joera klasikorako izan den.

Gazteek ere klasikora jotzen dute?

Gazteentzako bestelako markak ditugu, Pepe Jeans bakeroak edota kamisetak. Nagusiagoak, adibidez, beste mota-tako osagarriekin ausartzen dira gehiago, bufandekin edo biserekin. Orain dela urte pare bat hasi ginen Burberrysen biserak saltzen eta azkenaldian eskari handia izan dugu. Gabonetarako opari berezia izan daiteke bisera.

Opari onena!



Burberrys jantzi-jokoa

72 €

• Eskularruak • Bufanda • Aterkia

• Bidekurutzeta 5
BERGARA
• 943 76 10 57

LONBIDE OINETAKO DENDA

DENENDAKO OINETAKOAK



Idoia Lonbidek etxekoek tradizioa jarraitzen du.

“Emakumeen botetan, gero eta borobilagoak izango dira puntak”

Bergaran betidanik ezagutzen den denda da zuena, ezta?

Familiako hainbat belaunaldi pasatu dira dagoeneko dendatik. XIX. mende hasieran zabaldu zuen denda gure aitaren aitaitak. Belaunaldiz belaunaldi familia-ko makina bat kide ibili gara dendan lanean. Ni, esaterako, laugarren belaunaldikoa naiz.

Negua gainean daukagu; zapata on pareta, beraz, Gabonetarako opari bikaina izan daiteke?

Egun hauetan oparitarako gehien saltzen duguna etxeko zapatilak dira. Hala ere, umeei ere asko oparitzen zaizkie botak eta aurten oso kolore bizikoak dira. Neska-mutikoendako, adibidez Geox izeneko

zapatilak asko saltzen dira. Adin bakoitzari berea dagokio.

Aita bati zer zapata mota oparituko zenioke?

Batez ere, erosotasunari begiratuko nioke. Hala ere, zapata erosoak izateak ez du kentzen dotoreak izatea. Beraz, bi ezaugarri horiek konbinatuta: erosotasuna eta dotoretasuna.

Eta amari, berriz?

Gorainoko botak, adibidez. Egia da emakumeen oinetakoetan adinaren arabera asko aldatzen direla gustuak. Gazteek, adibidez, zapata troteroagoak nahiago izaten dituzte, funtzionaltasuna moda kontuen ginetik. Beraz, ama nolakoa den ikusi eta horren arabera aukeratu.

Opari onena!



Pedro Miralles botak

116 €

• Emakumezkoendako • Narruzkoak

MARGA JANTZIAK

EMAKUMEZKOENDAKO SOINEKOAK • GONAK • ALKANDORAK

- Iturriotz 21
ARRASATE
943 71 17 40
- San Pedro 20
BERGARA
943 76 05 37



Marga, Arrasaten daukan dendan; Bergaran ere badauka.

“Negu sasoian ere, kolore biziko arropak daude modan aurten”

Joera nagusirik badago sasoi honetarako?

Kremailera asko ikusten ari gara aurten eta puntuzko jertse eta berokiak ere bai. Lepo altua dago oso modan aurten eta koloreei dagokienez, oso biziak, nahiz eta negua izan. Udaberriari begira ere joera bera datorrela ematen du. Kolorea izango da nagusi: pistatxoa, laranja...

Zein motatako arropa saldu ohi duzue Gabonetan?

Batez ere egunero erabili ahal ditugun gauza txikiak, *sport* estilokoak. Negu-sasoian ez dugu hainbeste arropa saltzen. Uda edo udaberri aldera etortzen da jende gehiago, eguzki izpiek animatuta-edo. Neguko arropak garestiagoak dira.

Adinari begiratuta, zeintzuk izango lirateke arropa oparitzeko pistak?

Neska gazteei kamiseta estuak edo fular nahiz zapiak. Ilusioa egiten dute mota horretako opari txikiak. Andre nagusiago batendako, berriz, dotoreagoa den zerbait aukeratu nuke. Guk Joseph Ribkoss diseinugilearekin egiten dugu lan eta ezkontza eta ospakizun garrantzitsuetarako asko saltzen ditugu diseinatzaile horren arropak. Oso bereziak dira diseinuak eta jendeari benetan gustatu zaizkio. Azkenik, amamari opari tipikoagoa egingo nioke. Kasu honetan puntuzko jertse bat edo traje dotore bat. Koloreei dagokienez, klasikoetara joko nuke, hau da, udazken koloreetara.

Opari onena!



EMAKUMEZKOENDAKO JANTZI-JOKOA

• Andamio etxeko txamarra • J.L. Llorella bufanda eta txanoa

ZUBIKUA JANTZI DENDA

DENENDAKO ARROPAK • LENTZERIA • GIZONEZKOENDAKO BARRUKO ARROPAK

- Barrenkalea 24
BERGARA
• 943 76 10 16



Kristinak, Arantzak eta Edurnek Zubikuan dihardute lanean.

“Neska gazteetan oso modan daude paparreko orratzak”

Zein da aurtengo negurako zuen proposamena jantzietan?

Diseinu moderno eta berriak batez ere. Andrazkoetan beroki estuak eta gizonezkoentzat larruzkoak edo parkak.

Koloreei dagokienez?

Oso indartsu sartu dira koloreak aurten: laranja, fuksia, pistatxo kolorea... Gizonak bizitasun honekin gutxiago ausartzen badira ere, badoaz animatzen. *Sport* estiloko arropak dira nagusi.

Zein motatako arropa du gustuko jende gazteak?

Bi estilo nagusi leudeke: klasiko edo modernoagoa. Nik mutil bati praka nasai eta baxuak kamiseta batekin oparitutako

nizkioke. Hori bai, gustuen arabera. Oraindik ere mutil klasiko asko daude.

Eta neskak, ausartagoak dira?

Hemen ere bi joera: *sport* estiloa eta dotoreagoa. Beroki estuak ikusiko dira aurten asko, oso moda femeninoa dator. Praketan, adibidez, tiro baxukoa eta nahiko estuak aurkeztu dituzte marka gehienek.

Osagarri asko ikusten hasi gara, ezta?

Aurten paparreko orratzak jarri dira modan, mota guztietakoak daude. Gabonetan beti oparitzen dira osagarriak eta aurten orratzak daude modan. Poltsetan, adibidez, oso txikiak eramango dira. Orratza edo poltsa, opari politak biak.

Opari onena!



Gizonezkoendako jantzi-jokoa

337 €

• Caramelo prakak eta botak • Zone jertsea • Diesel gerrikoa

• Maalako errabala
8, behea
Garibai atzealdea
ARRASATE
• Tel.: 943 71 27 81
• Faxa: 943 71 17 85

ROUTER EUSKALTEL

SAKELAKOAK • INTERNETA • EUSKALTEL LEIHOA



Tzeitel eta Ainara, Arrasateko Router Euskaltel dendan.

• Telesforo
Arantzadi 2
BERGARA
• 943 76 00 79

GANTXEGI MERTZERIA

LENTZERIA • PIJAMAK • BARRUKO ARROPAK ORO HAR



Rosa Mari Gantxegi, mertzaria

“Bideoa graba dezaketen telefonoak datoz Gabonetarako”

Apaldu da dagoeneko garai bateko sakelakoen sukarra?

Oraindik ere asko saltzen dira sakelako telefonoak. Antza, jendea ezin da bizi sakelako barik. Ezinbestekoa da gaur egun eta, gainera, umeak gero eta gazteago hasten dira eskuko telefonoa erabiltzen.

Hala ere, puntako teknologiaren zaleak gara?

Alde horretatik, denetarik dago. Jende helduak, orokorrean, ez du konplikaziorik gura izaten eta gutxieneko funtzioekin nahikoa dauka. Gazteek, berriz, hobeto hartzen dute teknologia. Honetan ere, prezioak zerikusi handia du. Kameradun telefonoak, esaterako, oso bogan daude, baita Gabonetara begira ere.

Gabonetarako, eskaintza bereziak egongo dira?

Modu guztietakoak, gainera. Doako deiekin batera, promozio ugari egongo dira. Telefonoa erosteagatik opariak ere emango ditugu: bufandak, osagarriak, poloak...

Zein da dendan aurki dezakegun sakelakorik puntakoena?

Argazki kamera orain arteko nobedadea izan da, baina Gabonetarako bideoa grabatzeko aukera ematen duten telefonoak datoz. Pantaila gero eta handiagoa izango da, kolore biziak eta argazkiak ikusteko aukerarekin. Telefonoa pertsonalizatzeko gero eta joera handiagoa dago: estalkiak, karkaxak...

“Mutilek ere barruko arropa oso deigarria dute gustuko”

Oraindik ere ohikoa da hirukote hau oparitzea: galtzontziloak, galtzerdiak eta kamiseta?

Betiko ohitura da eta gizonetan oraindik ere asko oparitzen dira hiru horiek, opari tipikoa da. Hala ere, bai gizon zein emakumei oparitzeko, gero eta etxeko mantal gehiago saltzen dira, hori igarri dugu azkenaldian.

Ohiturekin jarraituz, barruko arropa gorri asko saltzen duzue Gabon zaharretarako?

Bai, eta asko gainera. Hala eta guztiz ere, ahalik eta merkeen erosi gura izaten da, txantxaren kontuagatik-edo. Mutilek ere, askok erosten dituzte galtzontzilo gorriak Gabon zaharretarako.

Barruko arropa aukeratzekoan, ausartzen gara diseinu berriekin?

Baietz uste dut, batez ere kolore konfuetan. Gauza erosoak gehiago saltzen dira eta kolore biziak ere asko. Mutilek ere, euren kabuz erostera etortzen badira barruko arropa oso deigarria erosi ohi dute.

Neska-mutil bikote gazte bati oparia egitekotan, zer erosiko zenioke bakoi-tzari?

Mutilari diseinu eta kolore biziko pijama alai bat-edo, originala den zerbait. Barruko arropa beti izaten da opari ona. Neskari, adibidez, bularretako eta kule-ro joko bat edota dotoreagoa den barruko arropa erosiko nioke.

Opari onena!



Nokia 3200 telefonoa 19 € *

• Argazki kamera dauka • Irratia ere bai • Baita linterna ere

* abenduaren 13tik aurrera

Opari onena!



Albornoza 64 €

• 100% kotoia • gizonetzkoendako eta emakunetzkoendako

- Maalako errebala 8 ARRASATE
- 943 79 56 44

ARREGI ENMARKAZIOAK

ARTE LANAK • MARKOAK • ISPILUAK • OBRA GRAFIKOA • ERAKUSKETAK



Iñigo Arregi da Arregi erakusketa aretoko arduraduna.

“Grabatuekin, prezio onean, artelan bat oparitu daiteke”

Zer obra grafiko izango duzue salgai aurtengo Gabonetarako?

Guk hilerok-artista baten lanen erakusketa egiten dugu eta baita saldu ere. Abenduan Juan Luis Baroja Collet artistaren lanak ditugu. Oso grabatugile ezaguna da bera, Debako Eskulangintza Eskolako irakaslea.

Zein motatako lanak izango dituzue?

Baroja Collet izatez eskultorea bada ere, grabatuengatik da ezaguna bere lana, batez ere akuafortearen teknikan. Askorentako grabatugintzaren egoera purua da hau eta horretan oso garrantzitsua da guk aurkezten dugun Juan Luis Baroja Colleten lana.

Nola deskribatuko zenuke obra?

Oso lan pertsonalak egiten ditu. Erabiltzen duen papera ere berezia da, berak eskuz egindakoa. Izatez, bere jardueratik eskultorearena da, hortaz, efektu eskultorikoak lortzen ditu. Bere grabatuen aurrean berehala igartzen da bereak direla, benetan pertsonalak.

Opari berezia egiteko aukera, beraz.

Benetan opari ona izan daiteke grabatuarena, originala eta, gainera, merkea. 180 eurogatik artista baten lana izan dezakezu etxean. Nahiko eskuragarria da, grabatuak serieka egiten baitira, nolabait artearen sozializazioa-edo da, adituen esanetan. Artea oparitzea benetan esker-tzekoa da.

Opari onena!



Grabatua

• Akuaforte teknika • Baroja Colleten grabatua

- Irala z/g BERGARA
- 943 76 24 82

TANTANA LURRINDEGIA

KOSMETIKA • PERFUMEAK • OSGARRIAK • EDERTZE ARETOA • SOLARIUMA



Josuk eta Jonk Tantana lurrindegia zabaldu berriari dihardute.

“Kosmetika naturala oso ondo dago prezio eta kalitate aldetik”

Asko oparitzen dira lurrinak Gabonetan?

Betidanik oparitu izan dira lurrinak. Gaur egun, hala ere, kosmetika sortak oparitzen dira asko. Otarrak prestatzen ditugu lurrin eta kosmetika produktuekin. Guk asko lantzen ditugu pakete eta aurkezpenak, eta oso opari dotorea izan ohi da otzara.

Kosmetika kontuetan, dena asmatuta dago?

Guk aurtan, nobedade modura, kosmetika naturala aurkezten dugu. Bada denbora bat produktu hauek eskaintzen gabiltzala eta oso harrera ona izan dute. Oso ondo daude kalitateari eta prezioari dagokienez.

Lurrinei dagokienez, modarik badago?

Aurtan muturreko usainak egongo dira bogan. Edo oso usain maskulinoa edo, alderantziz, femeninoa erabat. Hau da, behintzat, marka nagusiek aurkeztu dutena.

Pertsona bakoitzari bere lurrina, ezta?

Bai, hala da, eta gainera, eskaintza benetan zabala da. Aitari klasiko bat oparitu nioke, Armaniren azkena-edo. Amari, berriz, zerbait freskoagoa, batez ere ume txikiak baldin badauzka. Gazte-entako ere aukera zabala dago. Oso asper-tuta gaude betiko usainekin eta lurrin bat beti da opari ona.

Opari onena!



Nuxe kosmetika naturaleko packa

41,85 €*

• Begi-inguruko krema • Azal opako eta nekatuendako

* abenduaren 18ra arte

• Zurradero 4
BERGARA
• 943 76 08 43

BARCELO BIDAIAK

EZTEI-BIDAIA • ITSAS BIDAIA • NEGOZIO BIDAIA



Garbiñe eta Alaine, Bergarako Barcelo agentziako bulegoan.

“Gabon Zahar egunean kanpora joateko ohitura zabalitzen dabil”

Bidaiazteko ohiturak asko aldatu dira, ezta?

Bergaran 11 urte daramatzat bidai agentzietan lanean eta aldaketa sakonak egon dira. Lehen, sasoi oso zehatzetan bidaiatzen zen, udan eta Aste Santuan, batez ere. Orain, berriz, aisialdiari garrantzi handiagoa ematen zaio eta asteburuetan eta urtean zehar ere bidaiatu ohi da. Askoz erregularragoa da gure lana eta eskaintza bereziak ere urte osoan zehar dauzkagu. Oporraldietan baino gehiago, jendea aisialdia antolatzeke hasi da jotzen bidaiia-agentzietara.

Gabonek ere, hortaz, garrantzia hartu dute?

Ondo saltzen dira epe horretako eskaintzak. Batez ere Gabon zahar eta Urteberri

egunak kanpoan pasatzeko ohitura zabalitzen hasi da. Beste askok, Gabon egun ostean hasi eta urtarrilaren 2ra arte, aste osoa egiten dute kanpoan. Jende asko irteten da Gabonetan kanpora.

Eskiatzeko sasoiak ere bete-betean dugu gainean.

Jende asko joaten da eskiatzera neguan. Lehen gutxi batzuen luxua bazen, gaur egun nahiko eskuragarria da eskiatzea. Gainera, oso eskaintza interesgarriak daude. Aurten, esate baterako, abenduaren 10ean hasi eta martxoaren 20ra arte, asteburu guztietarako Luz Ardiden 3 egun (bi gau) 122 eurogatik egin daitezke. Autobusa, gainera, Eibar-tik bertatik irteten da.

• Barrenkalea 35
BERGARA
• 943 76 58 05

KINU ARGAZKI DENDA

ARGAZKI KAMERA DIGITALAK ETA ANALOGIKOAK • OSAGARRIAK • BIDEO-KAMERAK



Juanje, Idoia eta Bibi, Kiñu argazki dendan.

“Gaur egun kamera digitalak dira merkatuaren jaun eta jabe”

Dagoeneko kamera digitalak dira merkatuaren erregeak?

Salmentak izugarri igo dira azkenaldian, analogikoaren kalterako. Gabonetako salmentan ere berdin gertatuko da. Ekoizle guztiek ere arreta guztia digitalari eskaini diote. Eta prezio aldetik, gainera, oso ondo daude.

Abantaila handiak dituzte kamera berriek?

Kamera digitalak erraztasun handiak eskaintzen ditu: argazkiak atera ahala ikustea, borratzeko aukera... Baina, sormenaren aldetik ere, aukera handiak eskaintzen ditu ordenagailu batekin argazkiak manipulatzeko. Mundu zabalagoa da digitala. Gordetzeko errazak dira eta, erre-

belatzeko orduan ere, gaur egun, hainbat aukera dago. Dendan bertan inprima daitezke makina baten bidez, eta gura izanez gero, laborategira bidali, lehen bezala. Aukera asko daude bai kameretan zein errebelatzerakoan.

Kamera bat ez bada, zer oparitu daitezke?

Kamera digital batendako memoria txartela, adibidez, oso opari gomendagarria da. Nik, dendatik zerbait aukeratzekotan, memoria txartel on bat oparitu nuke. Bestela, kamerarendako osagarriak izango lirateke aproposak, tripodeak edo lenteak. Gabonetarako opari onak ere albumak edo marko dotoreak izan daitezke.

Opari onena!



Talonplan Card

100 €

• Lau taloi edo txartela • Ez du epe-mugarik • BEZ barne dago

Opari onena!



μ Olympus mini digitala

379 €

• Eguzkitan irudiak ikusteko moduko pantaila • 4 milioi pixel • Uraren kontrako egitura

Erosten jakin:

ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU



Goienka 2a

Egubakoitza / 2004ko abenduaren 10a

Kultura
eta
aisialdia



Abenduaren
10etik 17ra

HIP-HOP<<< FESTA ARRASATEN

Arratsaldetik goizaldera arte iraungo duen jaia antolatu du bigarren aldiz Arrasateko gaztetxeak

EGITARAUA

ABENDUAREN 11, ZAPATUA

17:00etatik aurrera: grafitiak eta Djak.

19:00: Break dance emanaldia. Amenra Crew

22:00: Logela Multimedia. *Labanderixie*.

23:00: 9 Dragones All Stars.

Kapo Ultramagnetiko, Robert Dinero,
Cheewaka, MC Kario, Rolex, Silva, Uzi.

00:30etik aurrera: DJ Alain eta
DJs Balza Crew.

Gabonak, kantuz hobeto!



Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedunei
DOAN banatuko zaie liburuxka
abenduaren 20ko alearekin batera.

Gabon kanten bilduma, liburuxka batean • Familia eta lagun artean abesteko • Ilustrazio eta guzti

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera,
09:00etatik 21:00etara.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

IKUSKIZUNA/ BIGARREN ALDIZ HIP-HOP FESTA ARRASATEN

Hip-hop festa Arrasaten

GRAFITIAK, 'BREAKDANCE' IKUSKIZUNA ETA DJ-AK IZANGO DIRA BIHAR GAZTETXEAN OSPATUKO DEN JAIAN

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Bigarren aldiz antolatu du Arrasateko gaztetxeak hip-hop festa. Bihar, abenduak 11, izango da hitzordua. Egitarau zabala antolatu dute antolatuzaileek; arratsaldean hasi eta goizaldera arte iraungo dute ekimenek. Grafitilari, DJ eta dantzak egongo dira ikusgai, besteak beste.

Hip-hopa gustuko eta mugimendu horretara lehenengoz gerturatu gura dutenek bihar dute hitzordua Arrasateko gaztetxean. Ibarreko grafitilariak, Elorrioko Logela Multimedia taldea... dira eskaintzetako batzuk.

HIP-HOP MUGIMENDUA

Hip hopa zer den adieraztea ez da erraza. Batzuek musika mota bat dela diote. Hala ere, Iago Cascon festaren antolatzaileetarikoa batek ez du hori horrela denik pentsatzen, "izan ere, musikaz gain, grafitiek eta dantzek ere garrantzi handia dute". Askok protesta modu bat dela diote; bizitzeko estilo bat dela, beste batzuek. Hala ere, mugimendu apurtzailea dela ez du inork zalantzan jartzen.

Biharko antolatutako ekimenean, baina, ez dago zertan hip-hop mundua ezagutu; izan ere, askorentzat estilo horretara gerturatzeko lehen urratsa izan daiteke. Horregatik, antolatzaileek egitarau erakargarria osatu gura izan dute.

"Iaz egin genuen lehenengo hip-hop festa. Gaztetxeak guztion gustuak hartu behar ditu kontuan, eta horregatik antolatu genuen. Hemengo askok atsegin dugu musika hori, eta gainera, estilo hori jendeari ezagutaraztera emateko modu egokia zela iruditu zitzaigun. Jende ugari gerturatu zen, 250 lagun inguru; aurrean ere, erantzun bera izatea espero dugu", eman digu aditzera Iagok.



Logela Multimedia taldearen *Labanderixie* lanak, musika, irudia eta dantza nahasten ditu.

Irudi-musika nahasketa 'Labanderixie'-n

Break dance emanaldia ikusteko aukera egongo da bihar 19:00etan hasita; aurretik, grafiti eta DJak nagusituko dira gaztetxean.

Ondoren, Elorrioko Logela Multimedia taldeak *Labanderixie* bere azken lana aurkeztuko du gaztetxean. Ikuskizun polita eskainiko du biharko festan. "DJa, gitarra jotzen arituko den musikaria eta horrekin batera, irudi proiektzioa egingo du talde bizkaitarrak", adierazi digu Iagok. 22:00etan hasiko da ikuskizuna, eta beste herri batzuetan izan duen arrakasta ikusita, Arrasaten ere ikusleek primeran pasatzeko aukera izango dutela eman dute aditzera.

"Bestalde, nabarmentzeko beste ekimen bat 9 Dragones All Star deitutakoa da", azaldu dute antolatzaileek. Jousilouli taldeko kide bat arituko da DJ lanetan. Berarekin zazpi pertsona arituko dira, eta horiek rapeatu egingo dute DJak sortzen dituen doinuei jarraituz. Logela Multimedia ikuskizunaren ondoren izango da.

Amaitzeko, DJ Alain eta DJs Balza Crew arituko dira musika jartzen. Jam aretoan sarritan aritzen da lehenengoa; eta Bergarako bi anaia dira DJs Balza Crew taldeko kideak.

Bost euroren truke Arrasateko gaztetxeak antolatutako Bigarren hip-hop festan parte hartzeko aukera egongo da bihar, zapatua.

Danbaka: Publikoaren Saria

Hemen, orain arteko sailkapena. Bidali mezuak: danbaka [laga tartea] taldearen izena eta bidali 7744 zenbakira. SMSaren kostua 0,90 euro+BEZ

- 1 **ENBOSKADA**
ARRASATE
Botoen %20,1
- 2 **DENIAL**
ARRASATE-ARETXABAETA
Botoen %15,7
- 3 **STUKAS**
BERGARA
Botoen %8,9
- 4 **OZEN**
ARRASATE
Botoen %8,4
- 5 **MALENKONIA**
ONATI
Botoen %5,5
- 6 **POTEMKIN**
ONATI
Botoen %5,2
- 7 **AMONAL**
ONATI
Botoen %4,4
- 8 **ISAREVOLUTION**
ARRASATE-ESKORITZA
Botoen %4,2
- 9 **JIM TNT**
ARRASATE
Botoen %4,2
- 10 **SUPERCOOLS**
BERGARA
Botoen %3,5
- 11 **IZAS**
ELGETA
Botoen %3,4
- 12 **LOS CRETINOS**
ARRASATE
Botoen %3
- 13 **MATXURA**
ELGETA-SORALUZE
Botoen %2,7
- 14 **SHARON STONER**
ONATI
Botoen %2,7
- 15 **DIXIE 900**
BERGARA
Botoen %2,6
- 16 **N OPH**
ARRASATE
Botoen %1,8
- 17 **OSTIADA OI!**
ELGETA-ARRASATE-BERGARA
Botoen %1,6
- 18 **NEURE BAITAN**
ARRASATE
Botoen %0,9
- 19 **TURBOAMOR**
ARRASATE
Botoen %0,7
- 20 **MUTED**
ARRASATE
Botoen %0,3

DANBAKA))))



ASTELEHENENKO GOIENKARIAn!

Danbaka-ko kontzertuen gaineko **informazio guztia** ASTELEHENENKO GOIENKARIAn: kronikak, kritikak, iritziak, inkestak, taldeen inpresioak, argazkiak... Eta baita Publikoaren sariaren gaineko sailkapen eguneratua. Hori guztia eta gehiago... ASTELEHENENKO GOIENKARIAn.

Erosi ASTELEHENENKO GOIENKARIA edo egin zaituz harpidedun!



Abenduak 10-17

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

MUSIKA

ANTZUOLA

► **Musika eskolak** emanaldia egingo du eguaztenean, hilak 15, udaletxean, 19:00etan. Aurretik, 18:30ean, trikitilariak kalejira egingo dute.

ARRASATE

► **Xirika aldizkariaren jai** izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan. Kauta, Keike eta Zendu taldeek joko dute.

► **Tronboi, tuba eta bonbardino** kontzertua eskainiko dute Arrasate Musikaleko ikasleek astelehenean, hilak 13, eskolan, 19:15ean.

BERGARA

► **Kontzertuak** izango dira gaztetxean. Gaur, egubakoitza, Supercools (Bergara), Al Infierno en Goitibera (Laudio) eta Erantzun (Zarautz) taldeek joko dute. Supercools bergararrek euren diskoa aurkeztuko dute. Bihar, zapatua, Muletrain (Madril) eta Captain Nemo (Donostia) taldeek joko dute. Emanaldiok 22:30ean hasiko dira.

ELGETA

► **Folk-jazz** emanaldia egingo du Uhne talde gipuzkoarrak gaur, egubakoitza, Espaloia kafe antzokian, 22:00etan, Udalak antolatuta.

► **Asier Serrano** musikariak kontzertua eskainiko du etzi, domeka, Espaloia kafe antzokian, 20:00etan.

Eguzkitza erretegia ZABALIK

Eguneko menua

Karta

Plater konbinatuak

Ogitartekoak

Aranerrek 30, BERGARA

943 76 97 01

MARTITZENETAN, ITXITA



GIARTZU
DERMOSTETIKA
ZENTROA
Boni Laskurain 3
BERGARA
943 76 35 71

Laser bidezko depilazioa

Ile kalitate bakoitzerako laser bat:

- **Alexandrita laserra:** ile mehe eta argiendako
- **Neodimio Yag laserra:** ile lodia eta ilunendako

Gainbegiratze espezializatua

Proba DOAN ordua eskatuta

OÑATI

► **Joxe Mari Anduaga** kantautoreak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean.

► **Lobo Electrico eta Black Diamond** taldeek emanaldia egingo dute bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:30ean. 5 euro da.

OSPAKIZUNAK

BERGARA

► **Gabonetako argiak piztu** eta Jaiotza ipiniko dute udaletxean abenduaren 13an, astelehena.

ESKORIATZA

► **Mendeurrenaren itxiera** ospakizunak egingo dituzte moja beneditarrek. Bihar, zapatua, euren monasterioan Easo Abesbatzak emanaldia egingo du, 19:00etan, eta etzi, domeka, Oñati Abesbatzaren txanda izango da, leku berean, 19:30ean.

IKASTAROKAK

OÑATI

► **Makillaje ikastaroa** antolatuta dute hilaren 17 eta 20rako Iratxo ile-apaindegian. Izenematea zabalik dago Gazte Informazio Bulegoan edo Iratxon. 10 euro da.

ANTZERKIA

ARETXABALETA

► **Ipuinak kontatuko** dizkie Maite Franco kontalariak 5-7 urte bitarteko umei. Martitzenean, hilak 14, izango da saioa, liburutegian, 18:00etan.

ARRASATE

► **El Huesped del Sevillano** zarzuela jokatu du Izaskun Murgia Lirika Elkarteak bihar eta etzi, Amaia Udal Antzokian, 19:30ean.

- Antzinako egurrezko altzarrien zahar berritzea
- Habeen saneamendua

LA VIRGEN DE MURILLO

Bidebarrieta 23, 6.
EIBAR
943 20 16 41

OÑATI

► **Galtzerdia** umeendako antzezlanak egingo du Taun Taun taldeak etzi, domeka, Santa Ana aretoan, 17:00etan.

DEIAK

ANTZUOLA

► **Ibarretxe Planaren** gaineko informazioa emateko mahaiak ipiniko dituzte bihar, zapatua, herriko kaleetan.

► **Konekta Zaitetz gela ibiltaria** Herriko plazan egongo da hilaren 13an eta 14an, arratsaldean, eta 15etik 17ra bitartean, goizean.

ARAMAIO

► **Miren Agur Meabe** idazleak irakurtzeko zaletasunaren gaineko hitzaldia egingo du martitzenean, hilak 14, kultura etxean, 16:00etan. 3.-6. maila bitarteko ikasleei dago zuzenduta berbaldia.

ARETXABALETA

► **Presoendako gauza erabilgarriak** biltzen dabil Espetxe Pastoral

mugimendua. Katiluak, barruko arropak eta galtzerdiak, hortzetarako pasta, pilak, desodorantea, gutun-azalak eta zigiluak eta turroi biguna bildu gura dituzte. Parrokiako sakristian utzi behar dira asteburuetakoz mezetan zein astegunetako meza ondoren.

ARRASATE

► **Eskualdeko Ospitale aurrean manifestazioa** egingo dute gaur, egubakoitza, 19:00etan. Patxi Cabori elkartzuna adierazi eta Karmeleren heriotza salatuko dute. Bestalde, bihar, zapatua, hiriburuetan izango diren manifestazioetan parte hartzeko dei egingo dute.

► **38an jaiotakoek** kinto batzarra egingo dute hilaren 18an, Egipe elkartearen. Izena emateko, jo Ziorla, Doke edo Egaska tabernetara hilaren 14a baino lehen.

► **Arrasateko eta inguruetak margolarien lanen erakusketa eta salmenta** antolatuta du Harreman GKEK hilaren 24ra bitartean, Monterronen, astegunetan, 18:00-20:00, eta zapatua eta jai egunetan, horrez gain, 12:00-14:00. Bildutako dirua San Clemente laguntza proiekturako izango da.

BERGARA

► **Iruñeko Euskal Jai gaztetxearen** hustearen gaineko bideo emanaldia egongo da bihar, zapatua, gaztetxean, 18:00etan. Segidan, Euskal Jaiko kide batzuekin tertulia izango da.

► **Bergarako Musika Eskolak** ohiko batzar orokorra deitu du hilaren 14rako, martitzena, eskolan bertan, 19:00etan eta 19:30ean.

► **Baqueira Bereterra** irteera antolatuta du Pol Pol taldeak urtarrilaren 14tik 16ra bitartean. Izena emateko, deitu 943 76 48 51 telefonora. Denboraldiko mendi edo eski txartela egiteko edo berritzea, jo euren bulegora, astegunetan, 19:00-20:30 orduetartean.

OÑATI

► **Herriko tabernariak** batzarrera deitzen dituzte martitzenean, hilak 14, kultura etxean, 17:00etan, hainbat gaitaz berba egiteko.

► **Ipuinaren beharra haurren garapen psikoafektiboa lantzeko** delako hitzaldia egingo du Juan Carlos Alonso psikologoak martitzenean, hilak 14, Errekalde herri eskolan, 18:00etan. HHko eta LHko 1. eta 2. mailatakoen gurasoei dago zuzenduta.



► IKUSKIZUNAK

'ZAHARREGIA, TXIKIEGIA AGIAN' SAIOA EGINGO DUTE BERGARAN

Mikel Urdangarin zornotzarra hainbat agertokitara igo da egunotan: bakarlari moduan Euskal Herriko azken kontzertua Irurtzunen eskaini zuen joan zen astelehenean, eta Madrilan ere jo du. Hemendik gutxira, hilaren 18an, hain zuzen, Berlingo nazioarteko jaialdi alternatiboan parte hartuko du. Baina tartean, han-hemenka aritu da bestelako proiektu batzuekin, eta Bergarara gerturatuko da gaur iluntzean *Zaharregia, txikiegia agian* muntaiarekin. Musika gain, poesia, ikus-entzunezkoak... biltzen ditu ikuskizun horrek. Hainbat adiskidek egingo dute emanaldia: Mikel Urdangarinek berak, Kirmen Uribe, Rafa Ruedak eta Bingen Mendizabalek.

Non: Bergaran, Gorka kantinan. **Noiz:** gaur, egubakoitza, abenduak 10. **Ordua:** 20:30ean.

AIPAGARRI

Gorka Etxabe

ARETXABALETA

Bergarako Migel Altuna institutuaren ibilbidea jasotzen duen liburua egin du Gorka Etxabe kazetariak. *Bergarako Elementala: 75 urteko ibilbidea* da liburua izena, eta eguaztenean egingo dute aurkezpena Bergarako udaletxean.



Iban del Campo

ARRASATE

Beste sari bat jaso du Iban del Campo zinemagile arrasatearrak. *Un tal Eusebi* dokumentalagatik, publikoaren saria jaso berri du Zallako zinema eta bideo amateurren jaialdian. Azaro bukaeran egin dute jaialdia. Arrasateko liburu denda batean dago salgai dokumentala.



Aitor Arregi

OÑATI

Madrilgo *Animadrid* Irudi Animatuen Nazioarteko Jaialdira eramanean dute Aitor Arregi zinemagile oñatiarrak eta Iñigo Berasategik elkarrekin zuzendu duten *Glup* filma. Domekan, film luzeen sail ofizialean eman zuten. Irusoin eta Dibulitooon etxeek ekoiztu dute.



HILDAKOAK

- Alejandro Juan Arauzo Sandoval. Arrasaten, abenduaren 2an. 75.
- Juan Manuel Gonzalez Lopez. Arrasaten, abenduaren 3an. 31urte.
- Pablo Arana Zubia. Arrasaten, abenduaren 3an. 83 urte.
- Celia Gomez Casado. Bergaran, abenduaren 4an. 92 urte.
- Aurora Gijon de la Llave. Arrasaten, abenduaren 4an. 90 urte.
- Miguel Angel Rama Marcos. Arrasaten, abenduaren 5ean. 35 urte.
- Gregorio Uriarte Madinabeitia. Oñatin, abenduaren 5ean. 81 urte.
- Bizente Barandiaran Banlantzategi. Arrasaten, abenduaren 7an. 93.
- Hilario Gorriti Aranguren. Bergaran, abenduaren 7an. 82 urte.
- Esteban Gorroño Arregi. Aretxabaletan, abenduaren 8an. 84 urte.
- Maria Murua Idigoras. Bergaran, abenduaren 8an. 91 urte.

ESKELA

Juanma Gonzalez Lopez

Arrasaten hil zen 2004ko abenduaren 3an, 31 urte zituela.

Beti gurekin egongo zara.



Lehenengo lerroko zure lankideak.
Aretxabaletan, 2004ko abenduaren 10ean.

ESKELA

Juanma Gonzalez Lopez

Arrasaten hil zen 2004ko abenduaren 3an, 31 urte zituela.

Gure gogoan betiko.



Arrasate Udal Euskaltegia.
Arrasaten, 2004ko abenduaren 10ean.

URTEURRENA

Julia Zuazubiskar Heriz

Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 12an, 11:00etan, Arrasateko San Andresko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Maritxu Olasolo Eizagirre

Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 12an, 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Kristina Untzueta Etxeberria
Modesto Arriolabengoaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 12an, 12:00etan, Aramaioko San Martin elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

OÑATI GARAJEA

Automobilien salmenta eta konponketa · Peugeot '05 gama osoa



PEUGEOT

OÑATI Garajea

Erakusketa eta tailerra:


Goribar auzoa 9 - Oñati / Tel.: 943 78 13 50 - Faxe: 943 78 33 69 Posta-e: garageonati@euskalnet.net

HITZGEZIDUNAK

Luma

| | | | |
|----------------------|-----------------|-------------------------|-------------------|
| | *Deitura | *Izena | Bare, lasai |
| | Zaindu, babestu | Altu, garai | |
| | Alde, eremu | | |
| | Erasoketa | | |
| Txirotasun | Eguzki | Kontsonante | |
| Zaletasun, jite | Infin., erori | Borroka-kirrol | |
| | | Suari dariona | |
| | | Potasioa | |
| Ontziaren aurrealdea | | | Iratzarri, esnatu |
| Eraz, maneiakor | | Egiptoko jainkoa | |
| | | Tira eginez | |
| Zoro, ergel | | Torturaren Aurk. Taldea | |
| Izan ezik, salbu | | Zein lekutara | |
| | Ugari, asko | | |
| | Arrantza tresna | | |
| Artsenikoa | | Nahaste | |
| Esaldi, perpaus | | Tankera | |
| | | Roentgen | |
| | | Zakur | |
| Hauskor | | | |
| Garaia, tartea | | | |
| | | Jardun, eragon | |

BILABILA7



UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

ESTANKORA ARDAU BILLA
Estraperlo denboran Eibarraren pasautakua da. Orduan, askotan behintzat, etzan tabakorik billatzen estankuetan eta bai ugari tabernetan. Bardiñ burdiña eros-terakuan, Arikixanera juan biarran, asko Bilbora juaten ziran, Patxoneko kafeteri-xara, burdiña billa.

Orrela gauzak, juan zan beñ eibartar "bromista" bat Gazteluneko estankora eta esatetsa ugazabari:

- Gaztelu, ekatzu ardu txikito bat.

Eta arek naiko aserre:

- Emen eztaok ardaurik!

Ta bestiak:

- Ene, taberna guztietan dao tabakua ta emen

zergaitxik ezta-ba egongo ardaurik?

EIBARKO ORKESTIA

Izugarrizko zaratia armau zan Eibarko kalietan. Ez aurrera, ez atzera ein ezinda, an zegoazen automobill pilla bat Untzaga inguruan. Aspertuta txoferrak hainbeste denporan geldi egoten, asi ziran klaxonak jotzen. An armau zan turutiak etzeukan akaberarik. Orretan, urten dau Isastiko denda batetik emakume batek eta diño eskuak belarrira eruanaz:

- Zer da au?

- Ori zer dan? —diñotsa txofer batek— ori Eibarko orkestia da.

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




Ze izen dauka Elgetako pilota elkarteak?

Asteleheneko Goienkaria-k oraintsu argitaratu ditu Debagoieneko futbol, eskubaloi, saskibaloi eta pilota elkardeen gaineko gehigarriak. Kirrol horietan, ibareko talde federatuetan, dabil-tzan neska-mutiko piloa ikusi ahal izan ditugu gehigarrietan. Azkene-koa irakurrita —pilotaren gainekoa—, jabetu ginen ibarrean zazpi pilota elkarte daudela, herri handi zein txikienetan, baita Elgetan ere. Jakingo zenuke zein den Elgetako elkartearen izena?

- Olalde
- Ozkarbi
- Eskuz
- Frontis

Erantzun zuzena: Ozkarbi.

SOLUZIOAK



| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| U | N | E | A | • | A | R | I |
| R | • | R | U | R | A | K | O |
| R | • | A | E | R | A | • | • |
| A | • | S | A | • | O | R | E |
| Z | • | A | N | • | I | T | • |
| A | • | T | • | • | A | T | • |
| R | • | O | E | R | • | • | • |
| A | • | S | O | S | O | • | • |
| • | • | B | R | A | N | K | • |
| • | • | J | O | E | R | A | • |
| R | • | • | E | K | I | • | • |
| A | • | N | Z | • | • | • | • |
| N | • | J | A | G | O | • | • |
| • | • | J | • | L | • | • | • |

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Osasun arazo larriak izango dituzu. Hala, bizi ohiturak aldatu egin beharko dituzu. Lanari dagokionez, berriz, soldata igoera izango duzu.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Zure jakintasuna, esperientzia eta heldutasuna direla-eta, hainbat lagunek zugana joko dute laguntza eta aholku eske. Hasieran ez dizu axolako, baina azkenean ere, amorratuta bukatuko duzu.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Nahastuta zaude. Ez dakizu zer sentitzen duzun. Horregatik, bikotekidearekin arazoak izango dituzu. Edozela ere, besteen esanei ez egin kasurik. Azkenik, aste honetan dirua galduko duzu.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Ile apaindegira joan behar duzu, txima horiek mozttera. Bestalde, azkenaldian buelta gehiegi ematen ari zara buruari. Lasai zaitetz, kirioak dantzan dituzu-eta.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Ozpinduta zaude. Beti ari zara gaizki pentsatzen, eta horrek ez dizu uzten lasai bizi izaten. Zoriontasuna lortzeko zer behar duzun jakin gura duzu, baina dena beltz ikusten duzu.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Lan kontuetan zorte handia izango duzu. Izan ere, langabezia bazau eta aurkituko duzu eta lanean bazabiltza, karguz igoko zaituzte. Ez larritu, ahal izango duzu-eta.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Azkenaldian oso gutxi ikusten dituzu lagunak. Utzi lana alde batera eta gozatu bizitzak ematen dituen plazerez. Hau da, carpe diem, bizi ezazu momentua.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Itota ibiliko zara aste honetan. Hori dela eta, bortizki jokatu duzu, eta arazoak izango dituzu lagunekin eta senitartekoekin.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Gaitza egiten zaizu erabakiak hartzea. Baina hartu egin behar dituzu. Hortaz, utzi beldurrik alde batera eta egin kasu senari.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Kalean emango duzu egun osoa, eta etxekoie ez zaie batere gustatuko hori. Bestalde, zure lanpostuan aldaketa batzuk gertatuko dira.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20




Gaizkiulertuak argitu behar dituzu, eta horretarako berba egitea da hobetena. Noraezean ibiliko zara, eta horrek hanka-sartzeak egitera bultzatuko zaitu.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20



Lan egoera hobetzeko ideia asko dituzu buruan, eta praktikan jarriko dituzu, gainera. Hala, nagusiek zoriondu egingo zaituzte. Bestalde, guztiz nahastuko zaituen amodio istorio bat bizi izango duzu. Azkenik, joko kontuetan zorte izango duzu.



GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA

Abenduaren 16a: 025 zozketa


Harpidedunen txokoa

Sariak, astero!

Eguenean, abenduak 16, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Abenduaren 16ko sariak



- Hamar gonbidapen, saridun bakoitzarendako bi, urtarrilaren 14an Elgetako Espaloia antzokian egingo den **DANBAKA** lehiaketako finalerako.
- Bi gonbidapen, saridun bakoitzarendako bi, abenduaren 18an Elgetako Espaloia antzokian egingo den **LAS PUNKYS DE VERDAD TAMBIÉN LLORAN** antzerkirako.



ITSAS-BIDAIAREN ZOZKETA ABENDUAREN 16AN!

Bi lagunendako Mediterraneoan zeharreko itsas-bidaia zozketatuko dugu abenduaren 16an, harpidedun guztien artean. GOITB-ko *Berriak* saioan, 20:00etan! Zorte on!

Laguntzailea: **VIAJES IBERIA**

BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

ESKAINITZA BEREZIA

Harpidetza kuota, 35 euro!

2004 eta 2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

024
zozketa
saridunak

Hauek izan dira
aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago,
ZORIONAK!

ZUMELAGA jatetxean
bi lagunendako afari
zoragarria.

- Txitxinpe taberna (Arrasate)

Eibar-Gimnastic de Tarragona partidua ikusteko sarrerak, saridun bakoitzarendako bi.

- Estitxu Ramos Bengoa (Aretxabaleta)
- Jose Ignacio Isasmendi Elgoibar (Eskoriatza)
- Arantzazu Garcia Azkoaga (Arrasate)

- Jesus Mari Biain Urzelai (Oñati)
- Antonio Murua Iñurrigarro (Arrasate)
- Iñaki Larrañaga Berasategi (Bergara)

Hamar gonbidapen, saridun bakoitzarendako bi, abenduaren 17an Elgetako Espaloia antzokian egingo den **DANBAKA** kontzerturako.

- Nieves Goirizelaia Arruza (Bergara)
- Amaia Aramendi Iparragirre (Aretxabaleta)

- Fernando Zubillaga Elorza (Aretxabaleta)
- Beatriz Navarro Lizarralde (Oñati)
- M. Guadalupe Manzano Madinabeitia (Bergara)
- Joxe Iñaxio Elortza Gorosabel (Arrasate)
- Izaskun Arregi Axpe (Arrasate)
- Francisco Alberdi Aizpurua (Bergara)
- Mario Etxanausia Irure (Eskoriatza)
- Agurtzane Zangitu Osa (Bergara)



'Derbia'
DOMEKA 12 / 19:00

Aloña Mendi eta Bergara aurrez aurre, derbian

Puntu garrantzitsuak izango dira jokoan Azkoagainen. Kanpoan irabazi ostean bolada onari jarraipena eman eta gorantz jarraitu nahi dute oñatiarrek; bergararrek, ostera, beharrezko dituzte puntuak, zulotik ateratzen hasteko.



'Debarri'
MARTITZENA 14 / 21:00 eta 23:00

Arrasateko alkatearen txanda oraingo 'Debarri' saioan


Alberto Gorritibereak aurkezten eta zuzentzen duen *Debarri* saioak Arrasaten egingo du oraingoan geldiuena. Betiko moduan, herriaren gaineko gaiak izango ditu berbagai herriko alkate Inazio Lakuntzarekin.



'Danbaka'
MARTITZENA 14 / 21:30 eta 23:00

Bergarako Supercools taldearen kontzertua

Doinu gogorak entzuteko aukera izango duzue oraingo martitzenean, *Danbaka* saioan. Supercools izeneko taldearen txanda iritsi da. Bergararren kontzertua 21:30ean eta 23:00etan izango duzue GOITBn.



'Danbaka'
EGUENA 16 / 21:30 eta 23:00

Ostiada Oi! Elgetako Espaloia antzokitik zuzenean

Eguenean, oi! musika eskainiko du, beste behin ere, *Danbaka* musika saioak. Oraingoan, Elgetako Ostiada Oi! taldearen eskutik izango duzue Elgetako Espaloia Kafe Antzokitik zuzenean eginiko kontzertua.

TELEBERRIAK

Pertsona ezagunak 'Hator Kantari Hator' ETB1 kateko saioan

Gabonen atarian, *Hator Kantari Hator* prestatzen dabil ETB1. Ohi bezala, kirolari, politikari, sukaldari eta musikari ezagunek parte hartuko dute: Cid, Beloki, Valverde, Amorrortu, Naroa Agirre, Oskorri, Alfonso Alonso eta Subijanak, batzuk aipatzearen.

Fikziozko saioak nagusi dira zinemaren ondoan

2003an, fikziozko saioek zinemak baino audientzia handiagoa izan zuten telebistetan. Hala dio ikusentzunezko produktuekin lotutako EGEDA enpresaren ikerketak. Era berean, dio gehien ikusitako 100 filmetatik 84 iparramerikarrak izan zirela.

ASTEKO PROGRAMAZIOA / Abenduaren 10etik 16ra



| EGUBAKOITZA 10 | ZAPATUA 11 | DOMEKA 12 | ASTELEHENA 13 | MARTITZENA 14 | EGUAZTENA 15 | EGUENA 16 |
|---|--|---|--|--|--|---|
| 13:50 Marrakzi bizidunak: Kalimero 14:15 Berriak 14:45 Behazulo 15:15 Danbaka: Los Cretinos 15:45 Berriak 16:15 Klip@ 19:30 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:25 Danbaka tarte 20:30 Marrakzi bizidunak 21:00 Ilunpean: Jon Beloki 21:30 Gure lanbide zaharrak 22:00 Berriak 22:25 Danbaka tarte 22:30 Ilunpean 23:00 Gure lanbide zaharrak 23:30 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera | 11:00 Behazulo 11:35 Danbaka: N_OPH 12:05 Danbaka tarte 12:10 Marrakzi bizidunak: Kalimero 13:30 Oinak izarretan 14:00 Filma: Bahituak 15:00 Ilunpean Jon Beloki 15:30 Danbaka: Los Cretinos 16:00 Danbaka tarte 16:15 Bi eta bat 16:45 Iragana gogoratuz 17:15 Klip@ 17:30 Behazulo 18:00 Danbaka: N_OPH eta Los Cretinos 19:00 Danbaka tarte 19:15 Emisio amaiera | 11:00 Filma: Bahituak 12:15 Marrakzi bizidunak: Animalikeriak 13:10 Danbaka: Los Cretinos 13:40 Danbaka tarte 13:55 Oinak izarretan. 14:30 Gure lanbide zaharrak: 15:00 Filma 16:00 Danbaka: N_OPH 16:30 Danbaka tarte 16:45 Bi eta bat 17:15 Ilunpean 17:45 Iragana gogoratuz 18:15 Ilunpean 18:45 Klip@ 19:00 Derbia: Aloña Mendi-Bergara 20:30 Emisio amaiera | 13:50 Marrakzi bizidunak: Kalimero 14:15 Berriak 14:40 Danbaka tarte 14:45 Ilunpean 15:15 Gure lanbide zaharrak 15:45 Berriak 16:10 Danbaka tarte 16:15 Klip@ 19:30 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:25 Danbaka tarte 20:30 Marrakzi bizi dunak: Kalimero 21:00 Harmailatik 22:00 Berriak 22:25 Danbaka tarte 22:30 Harmailatik 23:30 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera | 13:50 Marrakzi bizidunak: Animalikeriak 14:15 Berriak 14:40 Danbaka tarte 14:45 Harmailatik 15:45 Berriak 16:10 Danbaka tarte 16:15 Klip@ 19:00 Emisio hasiera 19:05 Oinak izarretan 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrakzi bizi dunak 21:00 Debarri: Arrasate 22:00 Danbaka: Supercools 22:30 Berriak 23:00 Debarri 00:00 Danbaka 00:30 Gaurkoak 00:45 Emisio amaiera | 13:50 Marrakzi bizidunak: Kalimero 14:15 Berriak 14:45 Oinak izarretan 15:15 Danbaka: Supercools 15:45 Berriak 16:15 Debarri 17:15 Klip@ 19:30 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:25 Danbaka tarte 20:30 Marrakzi bizidunak 21:00 Iragana gogoratuz 21:30 Bi eta bat 22:00 Berriak 22:25 Danbaka tarte 22:30 Iragana gogoratuz 23:00 Bi eta bat 23:30 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera | 13:50 Marrakzi bizidunak: Animalikeriak 14:15 Berriak 14:40 Danbaka tarte 14:45 Iragana gogoratuz 15:15 Bi eta bat 15:45 Berriak 16:10 Danbaka tarte 16:15 Klip@ 19:30 Emisio hasiera 19:35 Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrakzi bizidunak: Animalikeriak 21:00 Behazulo 21:30 Danbaka 22:00 Ostiada Oi! 22:00 Berriak 22:30 Behazulo 23:00 Danbaka 23:30 Ostiada Oi! 23:30 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera |
| 21:00 Ilunpean | 14:00 Filma | 19:00 Derbia | 21:00 Harmailatik | 21:00 Debarri | 21:00 Iragana gogoratuz | 21:30 Danbaka |

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



ALMACENES ARRASATE

FAGOR eta ASPES etxetresna elektrikoetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



BERMEA 2 URTE
1.460 X 550 X 590 mm

HOZKAILUA 1FA255

265 € 44.092 pta



BERMEA 2 URTE
1.850 X 598 X 590 mm

HOZKAILUA COMBI 1FAC495

359 € 59.733 pta



BERMEA 2 URTE
800 b/min
5 kgr.

GARBIGAILUA LA383

295 € 49.084 pta



BERMEA 2 URTE
1.000 b/min
6 kgr.

GARBIGAILUA LA4163

345 € 57.403 pta



BERMEA 2 URTE
450 b/min
6 kgr.

GARBIGAILUA LA143

208 € 34.608 pta



BERMEA 2 URTE
LABEA H21410 BN
BITROZERAMIKA VAP1400

LABEA eta BITROZERAMIKA

345 € 57.403 pta



TELEBISTA LAVIS

LA-1472 14"
119 € 19.800 pta.



TELEBISTA SONY

SONY 29" WEGA
399 € 66.388 pta.



TELEBISTA PANASONIC

TX-20LA2 LCD 20"
869 € 144.589 pta.



TELEBISTA Plasma PHILIPS

42PF9946 42"
2700 € 449.242 pta.

Biltegiako prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK



Erregalu kaxak,
saskiak eta otarrak
prestatzen ditugu,
zuen bezero,
bisita,
lagun edo
famiolakoei
opari eder bat egiteko.

Oparien osagaiak
aukeran libre uzten ditugu,
nahi duzuen produktuekin
osa ditzazuen.

Euskal Herriko
hainbat produktu
sartzeko aukera duzu
saski eta kaxetan.

Aurrekontua
zuen aukeraren arabera
prestatuko dizuegu.



**Gatzagako
otarrak**

JAKION ETA LABIDEA / Tel. 943 71 46 86 / 943 71 47 92

Zorionak eta
urte berri on!

Atzeskua

ENENKO AZKARATE

Miguel Angel Martinez/ Izozi saltzailea

Harindondin Izoziak instituzio bihurtu da Bergaran. Bai.

Gure aitak ekin zion negozioari. Bueno, aitaren aitona baten lehengusua hasi zen, baina gure zuzeneko familia-koen artean aita izan zen lehena; 8 urterekin Zarautzen hasi zen barkilloak saltzen.

Bergaran noiz hasi zen?

Aita Kantabriakoa da, baina txikitan etorri zen Euskal Herrira: Zarautzera,

Ordiziara..., eta, ondoren, Errepublikara garaian, 1933an, Bergaran hasi zen, Citröen B6 batekin.

Eta ordutik hona Bergarako plazan?

Bai, hasieran Farindondin izenarekin, baina gero, hura patentatuta zegoenez, aitak Harindondin jarri zion.

Zenbat furgoneta eduki dituzue?

Gerra etorri zenean B6 furgoneta erre egin zioten aitari Nazionalek Kantabrian. 1961ean beste batekin hasi zen, DKW markakoa, eta 1982ra arte eduki genuen hori; gero, Mercedes Benz 130 bat erosi zuen aitak eta iaiztik Fiat berri bat daukat nik.

Orain zeuk daramazu negozioa.

Bai, azken 10 urteotan neu nabil. Lehenago, gurasoen eta anai-arreben artean jarduten genuen.

Negozio ona da?

Bizi izateko lain ematen du, baina sakrifizio handia egin behar da. Niretako ez da jaiegunik, asteko zazpi egunetan aritzen naiz lanean.

Neguan hotz eta udan bero.

Bai, hala da. Negurako furgoneta zaharra hobea da berogailua daukalako; udarako, ostera, berria. Aurten, honekin, ez dut bero handirik pasa udan.

Gaur egun, oso jende gutxi dabil asteburuan.

Bai, orain dela 30 bat urte domeka goizak sekulako jaiak ziren. Gaur egun pena ematen du. Bestalde, gaur egun lehiakortasuna oso handia da, okindegi, egunkari saltoki eta tabernetan ere izozkiak eta litxarrerriak saltzen baitituzte.

Lehiakortasun desleiala egiten digute horiek, eta legez kanpo jokatzeko dute.

Egunik onena zein da?

Arazoak arazo, domeka da egunik onena, ordu gutxitan jende gehiago ibiltzen baita. Bestalde, orain sarritan beste hainbat tokitara joaten naiz furgonetarekin: jaietara, auto igoeretara... Jendea dagoen tokira. Urrunen Teruelera joan naiz.

Gozozalea zara?


Gozoak gustatzen zaizkit, baina kolesterol arazoak direla tarteko, ezin ditut jan.

Nortzuk dira erosle onenak?

Gazteak, zalantza barik. Ez diote horrenbeste begiratzen diruari, eta, zerbait nahi badute, erosi egiten dute eta kito.

Dena utzi eta beste lan bat topatzea bururatu zaizu?

Bai, une txarrak pasatu ditut, baina azkenean jabetu naiz lan hauxe dela niri gustatzen zaidana.



“Aitak ekin zion negozioari: 8 urterekin Zarautzen hasi zen barkilloak saltzen”

“Gazteak dira bezero onenak. Ez diote horrenbeste begiratzen diruari, eta, zerbait nahi badute, erosi egiten dute”

“Orain dela 30 bat urte domekak sekulako jaiak ziren. Gaur egun pena ematen du”

► Bergara / 43 urte / Harindondin Izoziak

PIPERRAUTSA

Landako

Ordenagailuak gogorazi dit iaz ere idatzi nuela Durangoko azokari buruz, eta ez dit utzi goiburua errepikatzen. Ez nuen, ordea, iazkoa errepikatzeoko asmorik. Izan ere, kanpoko lagunak izan ditut bisitari zubian, eta haien begiekin ikusi dut azoka aurten. Eta liluratu egin nau.

Landakok berak ematen du lehen kolpea. Ikusita azokako eraikina, albokoa eta Plateruena, hirurak elkarren ondoan eta zabalgu-nerderrean paratuta, igartzen da indarra, ahalmena. Salgaien ugaritasunak eragiten du bigarren zirrara, horrenbeste argitalpenekin handiagotu egiten da hizkuntza baten itzala. Eta hirugarren alderdi deigarria da jende errekarera, adin eta pelaje hain ezberdinetako errones andanarena. Apenas egin genuen ordubete azokan, baina ziur nago: orain euskara gehiago da lehen baino, nire lagun bageietara.

Hor diraute gabeziek, zertan uka. Azokak ez du bultzatzen esportazioa, ez du nabarmentzen argitalpen berria, ez du bideratzen hausnarketa. Ez behar beste, nire ustez. Eskaintza handiegia da dagoen merkaturako, esparru berrietara jo behar da, estrategia komertzialekin. Horrenbeste indar ezin da mugatu autokontsumora.

Baina, gabezien gaintetik, gera bedi gaurkoan lilura. Hau da, lagun bageietan nabaritu nuen harridura, eta bihotzean sentitu nuen harrotasuna. Landako agertu zitzaidan domekan hobekuntzarako oinarri sendoa.

MIKEL IRIZAR



Ormazabal
 BARNE ARKITEKTURA

Garibai 6C • 20500 Arrasate
 Tel: 943 71 19 81
 GIPUZKOA

SUKALDEAK ZERAMIKA
 ARGITERIA BAINUAK
 ETXERAKO ALTZARIAK